

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

42 zk.

2011





KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Azala eta marrazkiak: Juan Azpeitia, 2011. Serie “Aita, nora zoaz?”.

© EIZIE

© Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurragak, beren testuena.

© Itzultzaleek, beren testuena.

© Juan Azpeitiak, marrazkiena.

ISSN: 1132-2152

Legezko gordailua: SS-1152/01

Inprimaketa: Itxaropena, SA - Araba kalea, 45 - Zarautz

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Karlos del Olmo

Zuzendariordea:
Maite Imaz

Aholku taldea:
Gotzon Egia
Juan Garzia
Josu Barambones



Helbidea:
Zemoria, 25


20013 DONOSTIA

Tel.: 943 27 71 11
Fax: 943 27 72 88

senez@eizie.org
<http://www.eizie.org>

Aurkibidea

Aurkezpena / Presentación / Présentation / Introduction	6
Aitarekin bidaian	
Arantxa Iturbe - Agurtzane Intxaurraga	9
Podróz Z Ojcem	
Monika Czerny	29
My Journey with Dad	
Diana Draper	49
Auf der Reise mit Vater	
David Lindemann.....	69
El viatge del pare	
Ainara Munt Ojanguren.....	89
El viaje de mi padre	
Arantxa Iturbe - Agurtzane Intxaurraga	109
Idazlea Itzultzailen lantegian - Narrazio bat	
Itziar Otegi	131
Antzerki itzulpenaren berezitasunak	
Julia Marin Arteaga.....	145
Bikoteak, autopsiak eta familia handiak	
Arantxa Iturbe.....	153
Lantegikideak	
.....	157



Aurkezpena

HIKA konpainiaren antzerki lagin bat ekarri dugu oraingoan *Senez* aldizkariaren zenbaki berezi honetara; hain zuen ere, EIZIEk 2011ko udazkenean antolaturiko “Idazlea itzultzzaileen lantegian” saioaren emaitza: Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurragaren *Aitarekin bidaian* antzezlanaren libretotik hartutako lagin bat sei hizkuntzatan (euskaraz, polonieraz, alemanez, gaztelaniaz, catalanez eta ingelesez). Berriz ere oso aberasgarria izan den esperientziaren lekuko, Itziar Otegi mintegiaren koordinatzaileak idatzitako narrazioa ere jarri dugu orriotan. Arantxa Iturbek lantegian bizi izan duen esperientziaz hitz egin digu, eta Julia Marinek, berriz, antzerkiaren itzulpenaren berezitasunei buruzko artikulu bat eskaini digu. Azkenik, lantegikideen biografia laburrak bildu ditugu.

Presentación


El número especial de la revista *Senez* que presentamos en esta ocasión está dedicado a una obra teatral de la compañía Hika. Más concretamente, reúne los frutos del taller “El escritor y sus traductores” organizado por EIZIE en otoño de 2011. Se incluyen en él fragmentos seleccionados del libreto de *El viaje de mi padre*, de Arantxa Iturbe y Agurtzane Intxaurraga, en seis lenguas (euskería, polaco, alemán, español, catalán e inglés). Testigo, una vez más, de esta experiencia tan enriquecedora, Itziar Otegi, coordinadora del proyecto, narra en estas páginas lo vivido en el taller. Arantxa Iturbe describe su visión personal de esta experiencia. Julia Marin, a su vez, nos ofrece un artículo sobre las particularidades de la traducción teatral. Completamos este número de *Senez* con las biografías abreviadas de los participantes en el taller.

Présentation

Ce numéro spécial de la revue *Senez* nous montre un échantillon du théâtre basque. Il présente plus précisément le résultat du travail réalisé dans l'atelier « L'écrivain et ses traducteurs », organisé par l'association EIZIE à l'automne 2011. Il comprend des morceaux choisis de la pièce *Aitarekin bidaian* (voyageant avec mon père) écrite en euskara par Arantxa Iturbe et Agurtzane Intxaurraga, et leur traduction en cinq langues (polonais, allemand, espagnol, catalan et anglais). Coordinatrice de cet atelier et témoin privilégié de cette enrichissante expérience, Itziar Otegi expose ses impressions dans ces pages. Arantxa Iturbe nous fait part de son point de vue sur ces journées et Julia Marin nous offre un article sur les particularités de la traduction d'œuvres théâtrales. Pour finir, ce numéro spécial de *Senez* recueille les biographies résumées des personnes qui ont pris part à cet atelier.

Introduction

This special edition of *Senez* focuses on a play, and more specifically, describes the results of the “Writer – Translator Workshop” organised by EIZIE in the autumn of 2011. The special edition contains excerpts from Arantxa Iturbe and Agurtzane Intxaurraga’s play *Aitarekin bidaian* in six different languages: Basque, Polish, German, Spanish, Catalonian and English. Once again, the workshop proved highly enriching, and to testify to that fact, Itziar Otegi, the workshop coordinator, recounts her impressions of the whole experience. Arantxa Iturbe also gives us her personal perception of the workshop and Julia Marin explores the specific characteristics of theatrical translation. Finally, the edition also includes a series of brief CVs of all participants.



8 M 4 9 2 M 9 2 0 7 8 M

9 5 3 X 8 2 3 2

AITAREKIN BIDAIAN

Arantxa Iturbe - Agurtzane Intxaurraga

HIKA Teatroa

Sinopsis

Patxi aitarekin bizi da, bakarrik. Ama hil aurretik, hitz eman zion aita azkeneraino zainduko zuela. Ez zekien, ordea, zer zaila izango zitzaison hitza betetzea. Ahalegin horretan bizitza aldatuko zaio. Maite emaztegaia galduko du, lanari eustea kosta egingo zaio, eta, batez ere, aitarekiko erlazioa izugarri zaila bihurtuko zaio, aita gaixotzen eta oroimena eta izana galtzen doan heinean. Bide horretan, haatik, aita ezagutzera helduko da, osaba Juanen itzal oraindik luzea argituko du, eta bere bizitzaren istorioa ulertzera iritsiko da. Horretarako, ordea, beharrezkoa izango da bidaiaren azken geltokira heltzea.



Eszenatokiaren paretak agerian dira. Lurrean sakabanatuta etxeko altzari eta tresna ugari. Guztien artean lauk deituko digute atentzioa: akordeoia, bi maleta, esekitokia amaren arroparekin eta telefonoa.

Bi aktore eszenatokira sartu. Bata eszenatokiaren albo batean dagoen aulkia batean eseri, eta, bestea, aurrealdera etorri eta argi aldaketarekin batera hitz egiten hasiko da.

AITA-AKTOREA: “Zaharrak, gauzak dira” esaten ziguten gure zaharrek (*Barre minduz*) eta barre egiten genuen zaharren gauzak zirelakoan. (*Etsipenez*) Eta barrea zimurtu egiten da ziztu batean. Eta ahazten hasten zara. (*Pausa*) Ahaztu... Lehendabizi, gauzak: non sartu ote ditut giltzak? Geroxeago, hitzorduak: ze egunetan itzultzeko agindu zidan medikuak? Eta apuntatzen ikasten duzu... (*Etsipenez*) apuntatutakoa begiratzea ahazten duzun arte. Ahazten duzu bezperan izandakoa, goizean esandakoa, iluntzean egitekoak. Ahazten zaizkizu pastillak, betaurrekoak, izenak, urtebetetzeak, aurpegiak, bideak. Eta azkenik, ahazten zaizu non zauden eta zergatik, eta nor zaren. Ahaztu. Dena. Ona eta txarra. Ahazteak merezi duena eta ahaztea lastima dena. Ez dago ahanzturarentzat hesirik. Nor izatetik ezer ez izatera eramatzen zaitu ahanzturak. Zu, baina ez zu bakarrik: ezereza bihurtzen zarenean, beste guztiak zurekin. Gauza bakarra gogoan: zaharra, gero eta zaharrago. Erremediorik gabe. Atzera bueltarik gabe.

ANTZEZLANAREN HASIERA

(ARGI ALDAKETA)

Tren hotsa gero eta hurbilago, gero eta ozenago. Trena inguratzen ari da ziztu batean. AITA eszenaren erdian, zoriontsu. Ez du tren hotsik entzuten. Bere akordeoi

“imajinarioa” jotzen ari da, bere munduan erabat murgilduta. Melodia berri bat asmatzen ari da, munduko melodiarik ederrena. Eta oso ondo ateratzen ari zaio. Trenak bozina joko du.

Espazio berean, beste plano batean, PATXI, semea, erabat kontzentratuta biderketak egiten etengabe. Ez dauka ez paperik ez boligraforik eskura. Buruz ari da.

PATXI: Bederatzi mila bostehun eta hogeita hamabost, zortzi mila berrehun eta hogeita hamaiaka aldiz, hirurogeita hemezortzi milioi laurehun eta laurogeita bi mila bostehun eta laurogeita bost. 9535, 8232 aldiz, 78 milioi, 492 mila 120. 9535, 8233 aldiz, 78 milioi, 501 mila, 655. 9535, 8234 aldiz...

Bitartean, AITA ikusten dugu kantari eta akordeoi imajinarioari doinu zoragariak ateratzeko ahaleginean. Melodia tarareatzen ari da; pozik dirudi emazteari hitz eginez.

Bigarren planoan, MUSIKARIAk bere abestia eskaintzen du:

Bitztaren bidaian
maletak ere badira,
karga handiko maletak
hutsuneak bezain pisuak.
Azken geltokian ordea
dena da arin
srinegi aukera
birentzako bidaia latzean.

Ondoren, AITAren pentsamendua ari zaigu hizketan, ahots goraz.

AITA: *Rubia*, gaur badun zerbait airean! Desberdin sentitzen naun: sasoiko, indartsu... ezagutu hindudan egunean bezalaxe. Gogoratzen, *Rubia?* Gogoratzen nola igo hindudan aidean trenera? Eskutik heldu, tira nire aldera eta aupa, *Rubia!*, *hator hona!* Gazteak ez baitin ezinik. Eta nik (*Buruari kolpetxoak emanez*) gazte jarraitzen dinat! (*Ilusionatuta*) Krixton gogoa zaukanat hirekin egoteko. Bai horratio! Eta (*Berriz buruari kolpetxoak emanez*) honek zerbait nahi dueñean... (*Airean*) Hiri tira eta niregana ekarri hindudanean

bezala. (*Ordukoa gogoratuz*) *Hator hona, Rubia!* Eta hik: Ni, rubia? Beltzarana naiz-eta!, eta gero barre. Hire barre hori... barre zoragarri hori! (*Barre egiten du, oroitzapenetan galdua*) Nire *Rubia!* (*Errealitatera itzuliz*) Orain... entzun hau. Oso gutxi falta zaidan. Entzun! Ederra, e?! (*Tarareatuz*) Ederra benetan. Hi adina, *Rubia*. Ederretan ederrena.

AITAri melodiaren buelta bat zintzilik geratu zaio. Eten egingo du bere jarduna une batez. Ez daki nola jarraitu. Segundo erdiz ematen du desorientatuta dagoela, eta ondoren, berriz, bere onera itzuli dela, baina ez da hori. Bere melodiari ze jarraipen eman asmatu ezinik dago. Saiatuko da behin eta berriz. Ez du etsiko, ordea. Segituan itzuliko zaio irribarrea eta berriro ekingo dio melodiari hasieratik.

AITA: Gutxi falta zait, dedio! Ia-ian daukat!

Trenaren hotsa, trenaren bozinak eta melodía nahastu egingo dira.

PATXI aulkikitik altxako da eta deiadar egingo du.

PATXI: Aita!!!!!!

MUSIKARIA: Bigarren geltokia: Esekitokia. Ama! Zer jantziko dut?

3. eszencia

AITA, etsita, negar txikian ari da. PATXIk lanak amaitzeko aprobetxatuko du. AITA gero eta etsiago dago.

AITA: Zergatik ez? Etortzea nahi dut. *Rubia!* Jakin behar du piezaren buelta erdi bat falta zaidala. Zatoz, *Rubia!* Kontutxo bat daukat zuretzat... Beldurtuta nago, ama. Bai, ni beldurrez. Zu joan eta beldurra etorri! Ez dut berarekin bakarrik egon nahi... Ixo, ixo... ez du ezer esaten baina nik badakit hortxe dagoela. Argia itzaltzen dit; badaki beldurra diodala iluntasunari... (*Txistu egiten dio, goxo*) *Fiuuu! Rubia?* Zugan pentsatzen dudanean, orduantxe bakarrak ihes egiten dit beldurrak. Zergatik joan zara? Zuk badakizu zure eskuak behar ditudala beldurra uxatzeko; zure ezpainak nik

irribarre egiteko; zure ile beltzarana nik *Rubia* deitzeko. *Rubia...* (*PATXIri begira, etsita bezala*) Bera hor dago, bai. Beti hor, zelatan... irrik egin gabe... badakit nik nor den. (*Pausa*) “Aita” esaten dit. Ja! Aita! Niri sartuko dit ziria! (*Isilpeka*) Hori ez da nire semea. Hori Juan da. Juan alua!!... Ez. Ez naiz hasiko zure nebaz gaizki esaka! Hitz eman nizun eta ni hitzeko gizona naiz. Baino orain ere ez naiz ni hasi xaxatzen, “alproja” gora eta “alproja” behera! Zergatik begiratu behar dit goitik behera nire umearen aurrean? Jaun eta jabe bera balitz bezala? Esker txarrekoa, gizona! Familia honetan tokia egin diogu, zer demontre!! Erraza da ba *don-perfekto*kin bizi! (...) Zer? (*Urduri*) Barkatu, maitea, barkatu. Ez nuen hori esan behar. (...) Badakit bere dirua behar dugula aurrera egiteko. Mesedes, ez jarri triste. Esaidazu zerbait... Ezin zaitut triste ikusi. Zu ez. Ez alde egin. Nora zoaz! Nora zoaz, *Rubia!* Nora zoaz!!!!... Ez joan, ama...!!! Ama! Zurekin nahi dut! Zurekin!

PATXI sartuko da eta ezingo du AITAren negarrekin.

PATXI: Aita, ixo... Aita, ixo! Ama hilda dago... ama...

PATXI aldendu egin da eta argiak esekitokia erakutsiko digu. PATXIk bertako arropak hartu eta mekanikoki jantzi egingo ditu, egunero gauza bera egiten dueñaren zeremoniarekin. Amarena eginez hurbilduko da AITAren gana. PATXIk badaki ez dagoela AITA lasaitzeako beste modurik. AITAri begitartea alaitzen zaio.

AITA: Maitea! Etorri zara, beti etortzen zara... Eskerrik asko! Uste nuen... uste nuen... (*Lasaitua hartuz*) Ezer ez. Bai apaina zaudela, nik oparitutako soinekoarekin... (*Eskua hartzen dio goxoki*), plazako begi guztiak zugan biltzeko moduan! Ederrenetan ederrena. Eta zuk nirekin nahi! Kaben zotz! Ez da erraza ulertzen, ezta? Eta zu bitartean barre goxoan. Zenbat barre egin dugun elkarrekin! Ze demontre! Mundu honek barrezka hartzea baino ez du merezi. Eskerrik asko. (*Muxu ematen dio eskuan*) Zatoz, mademoiselle. (*Konplizitatez*) Oraindik gustatzen zaizu, ezta?

Eseri egiten dira biak.

AITA: Nahi al duzu entzun? Oso gutxi falta zait. (*Melodia tarareatuz*)
Itzela! Ederretan ederrena! Zu bezala...

PATXI-AMA: Zer moduz zaude?

AITA: Ondo. Orain oso ondo. Eta zu?

PATXI-AMAk ez dio ezer esango. Begira-begira jarriko zaio.

AITA: Ei, ei, ei... begi horiek triste daude... zer duzu?

*Akordeoi soinuarekin batera AITAk besoa luzatuko dio amari, dantzarako goni-
bitea eginez.*

AITA: Zatoz... ilargira eramango zaitut. Ilargira! Ahaztu orain Juanek
esan dizuna! Utzi diru kontuak... Ikuisko duzu akordeoia eskura-
tzen dudanean, mundua lortuko dut zuretzat! Eta ilargia ere bai
haren bueltan...!

*PATXI-AMAk begirada alboratzen du. AITAk kokotsetik heldu eta aurrez aurre
jarriko dio aurpegia.*

AITA: Ez dira oso garestiak, maitea. Kia! Ohe azpian gordetzen duzun
diru horrekin nahikoa izango dut. Honezkero iritsiko zaizu umeari
oinetako berriak erosteko ere...

*PATXIk amaren arropak erantziko ditu mugimendu bakarrean. AITAk bere be-
soekin heldu AMA oraindik hantxe balego bezala. PATXI koadrotik ateratzen da
eta bere tokia hartuko du eszenatokian.*

PATXI: Ez, ama. Aitak ez daki, baina osaba Juan joan denetik diru hori
lortzeko lo ordu asko galdu dituzu!

AITA: Segi dantzan, *Rubia!* Segi dantzan!

PATXI: Ez, ama! Ezin diozu horrenbeste kostatako diru hori berari eman.
Guretzat da! Gu bizitzeko da! Nire oinetako berriak, ama... Esko-
lan barre egiten didate galtzerdiak ikusten zaizkidalako. Ama...

Eszenatokiaren bestaldean...

AITA: *Rubia... Rubia!!!*

PATXI: Ez!!!!

AITA: Eskerrik asko! Zoragarria zara, *Rubia!* Akordeoi honekin bai!
Honekin jarriko dizut bai nik mundua zure hanka puntetan!...

PATXI: Ez, ama. Ez entzun! (*Pausa*) Aitak ez daki zer den zapatak urratuta ibiltzea! Nola jakingo du? Osaba Juanek esaten duen bezala oinak lurrean jartzen ez daki-eta!

AITA: (*Dantzarekin jarraituz*) Segi hegan! Segi hegan, *Rubia!*

PATXI: (*Negarrez*) Ez ama, aitak ez daki...

PATXI AITA dagoen tokira hurbildu eta berriz ere mugimendu bakar batean AMAren arropa jantzi eta AITArekin dantza egiteari ekingo dio. Dantza bukaera rara iritsi da eta AITAK musu emango dio bere maiteari.

PATXI kolpetik apartatu egingo da.

PATXI: Aita!

AITA: (*Lizun, jostalari*) Non da gure etxeko ipurdirik politena?

PATXIk haserre amaren arropak gainetik modu zakarrez kendu eta aldendu egingo da.

PATXI: Nahikoa da! Nahikoa da! Nazkatuta naukazu! Bainaz zertan ari naiz? Zergatik onartzen dizut hau guztia? Ni ez naiz ama bezalakoa. Nik ez zaitut berak bezala maite... Nik... nik... (*Larrialdien telefono zerrenda*) SOS deiak 94-667788, Gurutze Gorria 666554433, Dya..., Emakunde 696696. Emaus...

AITA-AKTOREA: Laugarren geltokia: Bi Maleta. Elkarrekin egindako bidaia.

5. eszna

AITA-AKTOREAk bigarren maleta hartu eta bestearen ondoan jartzen du. Bi

maleta orain eszenatokiaren erdian argiztatuak. AITA maletara hurbildu eta gai-nean eseriko da. AITAK bizitzaren ipuina kontatuko dio PATXIri. Edo uste horretan ari da behintzat. PATXI zutik alboan, ondoan beste maleta.

AITA: Seme...

PATXI: Zer, aita?

AITA: Ipuin bat kontatu nahi diat.

PATXI: Ez zaizkit ipuinak gustatzen, aspertu egiten naute.

AITA: Utzidak. (*Pausa*) Bazen behin, mutiko bat, txintxoa oso, eta familiarekin oporretara joan zen kontentu-kontentu. Ur putzu handi baten ondora joan ziren.

PATXI maleta egiten hasiko da. Oso zerrenda luzea du.

PATXI: Hiru pare alkondara: horia, urdina eta zuria.

AITA: Gustatzen?

PATXI: Ura?

AITA: Ipuina.

PATXI: Bai. (*Berera*) Lau pare galtza, bi tergalezkoak eta beste bi panazkoak.

AITA: Eta ura?

PATXI: Galtzerdiak: bost pare; seigarrena, lotarako. Baita... dozena erdi kantzontzilo ere.

AITA: Ur asko, asko!

PATXI: Dozena erdirekin nahikoa izango duzu.

AITA: Asko! Ur izugarri! (*Eskua tetxuraino luzatuko du*) Honaino bai gutxienez! Eta ba al dakik zer gertatu zitzaion mutikoari?

PATXI: Ez zekien igeri.

AITA: Nola dakik?

PATXI: Mutiko txikiiek ez dute igerian jakiten.

AITA: Gure mutikoak ez zekien, ez. Urak beldurra ematen zioan. Belau-netik gora bustiz gero marruka hasten zuan.

PATXI: Itotzeko beldurrez.

AITA: Horixe bera, baina haren aitak eta amak, sartzeko, beldurrik gabe! Oina muturraz lurra ukitzen zuen bitartean ez zegoela arriskurik. (*Berriro kontalari*) Azkenean, egin dik mutikoak aurrera, orain pausoa, orain bestea! Eta bat-batean umeak txilio egiten dik: ama!!! Ama izoztuta geratu zuan. “Ama, ama! Lagundu！”, oihu egiten zian ume gaixoak.

PATXI: (*Xurxulatuz*) Ama, lagundu...

AITA: “Lagunduiozu” esan zioan amak osabari. “Itotzen ari da！”, “atera nire txikia uretatik!! Zuk badakizu igerian!!”.

PATXI: Lagundu!

AITA: (*Pausa*) Bainan orduan oinetakoak kendu...

MUSIKARIA: Bainan orduan, oinetakoan kendu...

AITA:...Eta berak egin zian salto!

MUSIKARIA:...Berak egin zian salto!

AITA: Itsu-itsuan! Azkenekoz ikusi zian pare hartantxe! Sartu zian eskua barrura, eta ezer ez! Sartu zian berriz ere harago, baina han ere ezer ez. Ez zian etsitzen, eta halako batean, “Bai!” oihu egin zian. Bai! Hemen! Eta tira egin zian, bere indar guztiekin iletatik helduta! Eta gorpu eraman zian putzu ertzeraino bere txikia. Amaren oinetara... Amak ez zian ezer esaten. Nebaren alboan jarraitzen zian, biak hantxe: mutu, itsu, izoztuta. Eta bitartean nik (*Lehendabiziko pertsonara pasatuz*) txikia lurrean utzi eta hasi ninduan bularrean eragiten eta arnasa ematen... Hartu arnasa txiki... hartu arnasa... hartu arnasa! (*Arnasa falta zaio, itotzen ari da*)

MUSIKARIA: Hartu arnasa, hartu arnasa, hartu arnasa...

PATXI: (*Bat-batean bere onera etorri balitz bezala. Bat-batean ipuinaren benetako zentzuaz jabetuz bezala*) Aita... Aita??? Zu... Zergatik ez didazu sekula esan?

Isiltasuna. AITAren arnas hotsa bakarrik entzuten dugu.

AITA: (*Pasatu da beste historia batera*) Aitak beti esaten zion: etzan uretan. Eta mutikoak ez zuen nahi izaten, berriz itotzeko beldurra zeukan. Bi aldiz itotzerik balego bezala! Eta aitak “etzan lasai”, “ni hire ondoan egongo nauk beti”.

MUSIKARIA: Hire ondoan. Beti.

AITA: “Begira... eskua jarriko diat tripa parean”.

PATXI: Bai, aita. (*Goxo, ipuinean parte hartzeko prest*) “Ez askatu, aita!”

AITA: “Fida hadi nitaz. Ez haut askatuko. Beti helduko diat hemen azpitik”.

PATXI: “Eta eskua kentzen duzunean, zer?”

AITA: Hi ez arduratu orain horretaz! Eragin besoei: bati lehendabizi, besteari ondoren. Txandaka. Errota bahintz bezala.

PATXI: Honela?

AITA: Oso ondo, horrelaxe! Eta orain hankei gora eta behera!

PATXI: Begira, aita! Igeri egiten ari naiz! Errota bezala!!! Errota bezala!!!! Ikasi dut, aita!!!

PATXIk igeri eginez eszenatokia alderik alde zeharkatuko du. Alborik albo eta aurretik atzera eta alderantziz. Pozez gainezka dago.

PATXI: Ikasi dut!!! Ikasi dut!!!

AITA: (*Hunkituta*) Bai, seme. Ikasi duk! Txapelduna haiz igeri egiten! (*Abestuz*)

PATXI: (*Igeri egiteko modu ezberdinak probatuz*) Begira! Begira zein ondo ari naizen!

AITA: (*Bat-bateko nekeaz*) Bai. Igeri egiten ari haiz. Bakarrik igeri egiten. Hemendik aurrera ez duk beharko nire eskua tripa azpian. Ikusten?

PATXI: Aita...

AITA: E?

Bat-batean, biak isilik geratuko dira. Mutu. Bakoitza bere pentsamenduetan. Ne-katuta. Izugarrizko ahalegina egin balute bezala.

PATXI: Aita... Zuk...

AITA: Xxxx... lotarako ordua duk.

PATXI: Aita... zuk ez dakizu igerian. Osaba Juan berri...,

AITA: Juan, jain, jun, jan.

PATXI: ...Igerilari oso ona zen. Zu ez zaitut sekula ikusi gerritik gorako uretan.

AITA: Zer ez didazu ikusi?

PATXI: Zu. Igeri egiten.

AITA: Bihar igerian joango zara urrutira... ikusiko duzu!

PATXI: Bai.

PATXIk zutitu eta maletak zabalduko ditu.

MUSIKARIA: Bosgarren geltokia: Telefona. Minak barrutik deitzen du

6. eszena

Goiza da. PATXI telefonoa eskuetan duela, geldi. Ez daki zer egin. Deitu-ez deitu dabil: altxatu, eseri, zenbakia markatu, moztu... Hurbildu, aldendu, eseri, izerdia lehortu, eskuak morokildu... AITA, metro gutxira eserita, burua urrutti due-la, bere mundu paraleloan murgilduta, akordeoiarekin bere betiko pieza osatu

nahian jo eta su. PATXIk hartu du erabakia: den-dena aitortzea erabaki du. Zutitu, AITAren ondoan eseri eta hizketan hasiko zaio.

AITAk akordeoia jotzen jarraitzen du.

PATXI: Entzuidazu, aita: zahar-etxe batean gela eskatu dizut.

AITAk berean, kasurik egin gabe.

PATXI: (*Urduri*) Konturatzen al zara horrek zer esan nahi duen? Zahar- etxe batean!

PATXIk desesperazio puntu batez, zutitu, eta AITAri eskuetan daukan akordeoi imajinarioa kendu egingo dio, eta sofa gainean utziko du.

PATXI: Aita, utzi hori orain... Uztazu soinua pixka batean. Garrantzi- tsua da hau.

AITA, negarti, ustez akordeoia dagoen tokira begira geratuko da.

PATXI: Ulertzea nahi dut, ulertuko didazun azkeneko gauza izango bada ere.

AITA: Ezingo al dut soinurik jo?

PATXI: Bai. Oraintxe emango dizut. Baino orain entzuidazu.

AITA: Pieza bukatzeko oso gutxi geratzen zait.

PATXI: Badakit. Buelta bat bakarrik. Segituan utziko dizut.

AITA: Bai, mesedez, gure amari zor zioagu. Oraingoan bai, oraingoan, ilargira joango nauk berarekin.

PATXI: Ez daukat zalantzarak.

PATXI berriz ere AITAren ondoan eseriko da, eta bi eskuetatik helduko dio.

AITAk askatu egingo ditu eskuak eta bereak aztertzeari ekingo dio.

PATXI: Oso zahar-etxe polita da, eta erosoa. Zuretzako logela izango zenuke, eta edozer behar izanez gero, tinbre bat beti alboan, nahi duzunean deitzeko: txirrin-txirrin. (*Pausa*) Mendi kasko baten gai-

nean dago. Handik herri guztia ikusten da. Trenbidea ere bai...
Baita gure etxea ere. Gure...

PATXI *"gure" hitza trabatuta geratuko zaio. Zerbait hautsi zaio barruan.*

PATXI: Lehengoan izan nintzen ikusten. Jendeak oso pozik zirudien.

AITA, *automata bat bezala, berriz ere akordeoia jotzen hasi da.*

PATXI: Aita...! (*Atentzioa bildu nahian*) Aita, txirrin-txirrin! Aita, oraindik ez dizut soinua itzuli!

AITA *harrituta begiratuko dio. Bainax itxuraz, adi.*

PATXI: Amari hitz eman nion zainduko zintudala. Hitz eman nion elkarrekin egingo genuela bidaia. Bainax, hain dira desberdinak gure bideak, aita! Hain desberdinak...

AITA: Ez tristetu, seme. Egingo diat hiri ere pieza polit bat (*Begia keinatuz*) Maiterekin dantzatzeko. Zergatik ez diok deitzen? Deituiook. Bainax ez esan nik egin dudanik! Nik ere ez zioat esango. Gure sekretua izango duk. Hik heldu gerritik, eta jira alde batera, gero bestera...

PATXI: Maite ez da ama bezalakoa, aita.

AITA: Amak hegan egiten dik dantzan hasitakoan.

PATXI: Badakit. Maitek ez daki dantzan.

AITA: Ez nauk harritzen! Beti traste hori eskutan hartuta!

PATXI: Aita! Zer daukazu ordenagailuen kontra?

AITA: Zer?

PATXI: Ordenagailuak... Maiteri hondatu egin zenion berea. Gogoratzan?

AITA: Pieza polit bat. Horixe duk. Neronek egingo diat.

AITA *berriz ere akordeoi imajinarioa jotzen hasiko da.*

PATXI: Alferrrik ari zara, aita! Zure soinua nik daukat.

PATXIk akordeoi imajinarioa airean altxako du eta erakutsi egingo dio.

AITA: Ekarri hona!

PATXI: Ekarri! Ez, ez... zuk etorri beharko duzu bila!

AITA: Soinua behar diat nire pieza bukatzeko!!

PATXI: Emango dizut, harrapa ezazu!

PATXIK akordeoi imajinarioa berriz ere airean altxatuko du.

AITA: Ez badidak ematen, piezarik gabe geratuko haiz! Hik ikusi!

PATXI: (*Jende imajinarioari, jolasti*) Bai! Aizue! Akordeoi zoragarri bat daukat hemen; munduko piezarik politenak egiten ditu! Zenbat ordainduko didazue!?

AITAk begiak itxiko ditu eta PATXIri bizkar emanda jarriko da.

AITA: Jolaserako hago, e? Hiru arte kontatuko dut. Eta hiru kontatze-rako, hementxe, nire oinetan nahi diat soinua, aditu? Bat...

PATXI: (*Obedituz*) Baaale... konforme...

PATXIk, oraindik barrez, AITAren oinetan jarriko du soinu imajinarioa.

AITAk begiak zabalduko ditu eta makurtu egingo da, emozionatuta, bere soinua hartzena.

PATXIk hunkituta begiratuko dio.

PATXI: Ni prest nago zure piezak ikasteko, aita!

AITA: Bukatu egin beharko diat lehendabizi! Bestela kosta behar zaik ikastea!

PATXI: Dantza ere egingo dut zure doinura, zuk hala nahi izanez gero!

AITA: Nirekin ez! Hik hire neska horrekin egin behar duk!

PATXI: (*Suabe, ez batere agresibo*) Ez dut Maiterekin dantza egin nahi!

Maite joan zen, aita. Edo zu edo bera esan zidan. Eta nik ulertu egin nuen, ulertzen? Ni orain zurekin nago, aita. Zure akordeoia

zaintzeko, hala nahi baduzu... Bainan lagundu egin behar didazu. Pixka bat lagundu.

AITA: (*Hunkituta*) Bai, baina bihar...

PATXI: Bihar biharkoak! Bihar nagusiarengana joan beharko dut eta oso haserre daukat.

AITA: Juan kabroi hori...

PATXI: (*Barre txikia*) Haserretzen denean badu osabaren antza, bai... Haserre txarrekoak biak! Burua ere lanera eraman behar dela leporatu zidan atzo! Eta burua etxeen uzten banuen, lana ere etxera ekartzeko!

AITA: (*Sinetsita, bene-benetan*) Lagunduko dizut burua bilatzen. Zu ez arduratu. Ez du urrutি behar. Sofan bertan igual...

AITA *buruaren bila hasi da.*

PATXI *k berriz ere dibertituta-hunkituta begiratuko dio.*

PATXI: Etxe honetan dena sofan ezkutatzen da!

AITA: Ezkutaleku ona da! Buru, burutxo, hor zaude, burutxo? (*Patxiri, bete-betean*) Deituiok heuk, seguruenik hiri kasu gehiago egingo dik niri baino.

PATXI: Jakina. Nirea da-eta! (*Lotsa eta gogoa biak nahastuta*) Buru, burutxo...

AITA: (*Keinuz tingoago aritzera animatuko du*) Tira... beldurrik gabe. Emaiok!

PATXI: (*Animatua*) Ei, buru, buru handi! Artaburu!

AITA: Hori duk eta! Tinkotasunez, jakin dezala heu haizela nagusia.

PATXI: (*Sinesten hasita*) Ei, buru... burutzar zikina! Non demonstre hago?

AITA *barrezka ari da gustura. Bitartean, PATXIk indarrak bildu nahian arnasa*

hartuko du birritan sakonetik... Gero orro moduko bat egingo du erasorako pres-tatzeria doan animalien pare.

PATXI: Aaaa!!! Burutxo!! Jolaserako hago, e? Hiru arte kontatuko diat.

Eta hiru kontatzerako, hementxe, nire oinetan nahi haut, aditu?
Bat...

Horretan, AITAk geldi egoteko keinu egiten dio. Ezer esan gabe sofa azpira hur-bildu eta bertatik buru imajinarioa eskuetan hartu eta semeari ematen dio aurpe-gi inozoz.

AITA: Ezikusia egiten ari zuan! Baino gu bizkorrago ibili gaituk.

PATXI: Batez ere zu, aita.

PATXIk buru imajinarioa bere buruan jartzen du.

PATXI: Eskerrak topatu duzun!

AITA: Ez du gozoa izan behar bururik gabe ibiltzeak.

PATXI: Ederra egin behar nuen! 9535 bider 9002? 85 milioi, 834 mila eta
70!

AITA: (*Mirestuta*) Ze gauza politak esaten dituzun!

PATXIk sorbalda gainetik pasatuko dio eskua, maitakor.

PATXI: Moldatuko gara elkarrekin... Segi zure piezarekin, aita! Buka-tzen duzunean erakutsiko didazu, eta hura bukatutakoan hasiko gara berriarekin! Eta igeri egitera joango gara! Seguruasko ez dugu osaba Juanek bezain ondo sekula egingo!

AITA: Juan kabroia! Alua!

PATXI: (*Bat-batekotasunez*) Kabroia eta alua!

AITAK harrituta eta era berean mirestuta begiratuko dio. PATXI bera ere harritu-ta dago. Ezin du ulertu oraindik halakorik esatera ausartu denik.

AITA: Hori duk eta!

PATXIk atzera egin beharrean, aurrera egitea erabakiko du. Arnasa sakon hartu ondoren, oraingo honetan intentzio osoz esango ditu hitzak.

PATXI: Aaaaaa! Kabroia eta alua!

AITA: (*Gora begiratuz. Barrezka*) Oraingoan ez naiz ni izan!

PATXI: (*Lotsagabekeri eroaz, barrezka ere*) Juanito txoropito!!! Begira, igeri egiten ari nauk!

PATXIk parodia eginez, igeri egiten. AITA bitartean uluka eta bibaka.

AITA: Aire, Juan, eta ez gehiago itzuli!!!

PATXI: Osaba txoropito, Satanas nauk!!!

AITA eta PATXI barre algaraka daude, lehertzean.

AITA: Tu! Tu! Txoropito!!!

PATXI: Txoropito, Juan! Begira, igeri egiten ari nauk, aitak erakutsita! Juan buruarina, txepela eta txokila!! TXOROPITO!!!

Mozkorraldi hau baretzen doan neurrian...

PATXI: (*Barrez*) Ez da erraza hark bezain ondo egitea! Baino ito gabe aurrera egitea bada zerbait! Eta gauetan ipuinak kontatuko dizki-zut edo zuk niri! Eta...

PATXI emozionatuz joan den arren, AITA ez da akordeioa jotzen hasi.

AITA PATXIri begira dago, ezerezari begira bezala, begirada galdua.

PATXI: Eta lanean errieta egiten badidate, etxearen aurreratuko ditut lanak! 9535 9003 aldiz, 85 milioi, 843 mila, 605!!! Kontabilitate triste batek ez nau kikilduko! Buru hau ez da hain erraz herdoolduko! Ez behintzat ariketa hauek egiten jarraitzen badugu. Gauzatxo bat bakarrik: hitz eman behar didazu ez zarela gehiago bakarrik trenbidera joango! Biok joango gara nahi duzunean trenak pasatzen ikustera! Baino estaziotik! Oso ondo ikusten dira handik! Trenbidetik bertatik baino hobeto!

AITAk ez du begirik itxi ere egiten. Ezezagunari bezala begiratuko dio PATXIri.

PATXI: Ez al duzu trenak ikustera joan nahi nirekin?

AITAk mutu begiratuko dio.

PATXI: Aita, esaidazu zerbait: moldatuko gara, baietz? Ez al zaude kontentu? (*Albo batera eta bestera begiratuz*) Non utzi duzu soinua?

AITA: Ze soinu?

PATXI: Zurea! Munduko piezarik ederrena osatzen ari zara amarentzat!
Eta hura bukatutakoan...

AITAk ez diola ulertzen adieraziko dio begiradarekin.

AITA: Nolaz dakizu nire piezarena? Nor zara?

PATXI lur jota utziko du AITAren galderak. Eseri egingo da une batez. Bainaz ez daukan tokitik indarra ateraz, zutitu egingo da berriro.

PATXI: Zure semea naiz. Patxi.

*AITAk out begiratuko dio, ezertxo ere ulertu gabe. PATXI, bere desesperoan, ese-
kitokira joan eta amaren jantziak janzen hasiko da.*

PATXI: Eta zu nire aita!

MUSIKARIA: Ahazten zaizkizu pastillak, antiojuak, izenak, urtebetetzeak, aurpegiak, bideak. Eta azkenik, ahazten zaizu non zauden eta zergatik, eta nor zaren.

PATXI: Zuk erakutsi zenidan igerian zeuk jakin gabe! Zuk atera ninduzun uretatik itotzear nengoela! Eta gero handia egin nintzen eta lanpostu eder bat lortu nuen. Ama eta hirurok joan ginen afaltzera lehendabiziko soldatarekin, akordatzen?

PATXI jantzi da erabat ama eta AITA bere onera ekartzen saiatuko da.

PATXI: Ama oso harro zegoen gutaz... eta zuk orduko hartan ere danszan egitera atera zenuen... Akordatzen, aita?

MUSIKARIA: Ez dago ahanzturarentzat hesirik. Nor izatetik ezer ez iza-
tera eramatzen zaitu ahanzturak. Zu, baina ez zu bakarrik: ezereza
bihurtzen zarenean, beste guztiak zurekin.

PATXIk, eroen dantzan, arrastaka darama aita.

PATXI: Jiratu nirekin, aita. Orain alde batera eta gero bestera... Aita,
mesedes! Aita... aita!!!!

MUSIKARIA: Zaharra, gero eta zaharrago. Erremediorik gabe. Atzera
bueltarik gabe.

*AITA joan da bere mundura. Betiko. PATXI zeharo lur jota, etsita, badaki AITAk
betiko alde egin diola. Amaren arropak kentzen hasiko da pixkanaka. Oso pixka-
naka. Telefonora hurbildu eta hartu egingo du.*

PATXI: Etorri nahi duzuenean. Gu prest gaude.

MUSIKARIA: Seigarren geltokia: Akordeoia, esekitokia, bi maleta, telefo-
noa. Eta zu eta ni, hemen... azken geltokian.

PODRÓŻ Z OJCEM

Tłumacz: Monika Czerny

Streszczenie

Tadeusz mieszka sam z ojcem. Przyrzekł umierającej matce, że będzie się nim zajmował, nie wiedział jednak jak wielkim wyzwaniem okaże się dotrzymanie danego słowa. Całe jego życie jest w rozsypce: opuściła go narzeczona, lada moment może stracić także pracę... Na domiar złego zupełnie nie potrafi porozumieć się z chorym ojcem, który z wolna traci pamięć i kontakt z otaczającą go rzeczywistością. Mimo wszystko, podczas tej wspólnej podróży, Tadeuszowi uda się w końcu poznać ojca, rozproszyć wszechobecny cień wuja Stanisława i nareszcie zrozumieć swoją własną historię. Ale by tak się stało, ojciec i syn muszą wpierw razem dotrzeć do ostatniej stacji.



Nieosłonięte ściany sceny. Dużo porozstawianych domowych mebli i sprzętów na podłodze. Naszą uwagę przykuwają: akordeon, dwie walizki, wieszak z ubraniem matki i telefon.

Dwóch aktorów wchodzi na scenę. Pierwszy siada na stojącym z jednej strony sceny krześle, drugi wychodzi naprzód i wraz ze zmianą światła zaczyna mówić.

OJCIEC-AKTOR: „Stare to mogą być tylko rzeczy” mówili nam starszy ludzie (*Gorzki śmiech*), a my się śmieliśmy, że starzy mówią od rzeczy. (*Zrezygnowany*) Ale śmiech gaśnie szybko. I zaczynasz zapominać. (*Pauza*) Zapominasz... Zaczyna się od przedmiotów... gdzie ja wsadziłem klucze? Następne są spotkania... kiedy kazał mi przyjść lekarz? I uczysz się zapisywać... (*Zrezygnowany*), do momentu, aż zapominasz sprawdzić to, co zapisałę. Zapominasz co wydarzyło się wczoraj, co powiedziałeś rano, co masz zrobić wieczorem. Zapominasz tabletek i okularów, uciekają ci imiona, daty urodzin, twarze i adresy. W końcu zapominasz gdzie jesteś, dlaczego i kim jesteś. Zapominasz. Wszystko. To co dobre i to co złe. To, co warte zapomnienia i czego zapomnieć szkoda. Zapomiananie nie zna granic. Zapominanie wiedzie cię od bycia kimś do bycia niczym. Ciebie, ale nie tylko ciebie... gdy przeistaczasz się w nic, wraz z tobą – wszyscy inni. I tylko jedno pozostaje w pamięci: jesteś stary, coraz starszy. Nieuchronnie. Nieodwracalnie.

POCZĄTEK PRZEDSTAWIENIA.

(*ZMIANA ŚWIATEŁ*)

Stukot jadącego pociągu, coraz bliższy, coraz głośniejszy. Pociąg nadjeżdża z zawrotną szybkością. OJCIEC na środku sceny, szczęśliwy. Nie słyszy odgłosu

maszyny. Gra na swoim wyimaginowanym akordeonie, daleko od otaczającej go rzeczywistości. Komponuje melodię, najpiękniejszą melodię na świecie. Dobrze sobie radzi. Gwizd pociągu.

W tej samej przestrzeni, na innym planie, TADEUSZ, syn, skupiony, nieprzerwanie mnoży. Nie ma papieru ani długopisu. Liczy w pamięci.

TADEUSZ: Dziewięć tysięcy pięćset dwadzieścia pięć razy osiem tysięcy dwieście trzydzieści jeden, równa się siedemdziesiąt osiem milionów czterysta osiemdziesiąt dwa tysiące pięćset osiemdziesiąt pięć. 9535 razy 8232, równa się 78 milionów 492 tysiące 120. 9535 razy 8233, równa się 78 milionów, 501 tysięcy 655. 9535 razy 8234...

W tym samym czasie OJCIEC śpiewa i usiłuje wydobyć ze swojego wyimaginowanego akordeonu najpiękniejsze tony. Nuci melodię. Gdy zwraca się do żony, na jego twarzy maluje się zadowolenie.

Na drugim planie MUZYK śpiewa swoją pieśń:

W podróż życia
zabiera się też walizki
walizki wypchane po brzegi
ciężkie jak niezapelniona pustka

Jednak na ostatniej stacji
wszystko staje się lekkie
zbyt lekkie może
w tej trudnej podróży we dwoje

Następnie rozbrzmiewa myśl OJCA, donośnie.

OJCIEC: Lalka, dzisiaj jest coś takiego w powietrzu! Jakoś inaczej się czuję; rześki, silny... dokładnie tak, jak w dniu, kiedy cię poznałem. Pamiętasz, Lala? Pamiętasz jak szybko wciągnąłem cię do pociągu? Złapałem cię za rękę, pociągnąłem do siebie i hooopla, Lalka! Do mnie! Dla młodych nie ma rzeczy niemożliwych. A ja (*Puka palcam i głowę*) wciąż jestem młody! (*Z radością i zachwytem*) Tak bym chciał teraz z tobą być! Bo co! (*Ponownie stuka się w głowę*) A

kiedy ja czegoś chcę... (*Przed siebie*) Tak jak wtedy, gdy przyciągnąłem cię do siebie jednym ruchem. (*Wspominając tamto zajście*) Do mnie, Lala! A ty: Ja, lala? Nie pozwalaj sobie! A potem w śmiech. Ten twój śmiech, ten twój cudowny śmiech! (*Śmieje się, zagubiony we wspomnieniach*) Moja Laleczka! (*Powraca do rzeczywistości*) Teraz... posłuchaj. Niewiele mi już brakuje. Słuchaj! Piękna, co?! (*Nuci*) Naprawdę piękna. Tak jak ty. Najpiękniejsza z pięknych.

OJCU brakuje jedynie ostatnich nut, żeby skończyć melodię. Przerywa na chwilę. Nie wie jak kontynuować. Przez ułamek sekundy wydaje się, że jest kompletnie zdezorientowany, po chwili, że doszedł do siebie, ale tak nie jest. Nie potrafi dobrać właściwych dźwięków. Próbuje raz i drugi. Nie poddaje się. Za każdym razem na jego twarz powraca uśmiech i zaczyna grać od początku.

OJCIEC: Niedługo skończę, jak nic! Już ją prawie mam!

Stukot pociągu, jego gwizd i melodia, mieszają się.

TADEUSZ podnosi się z krzesła i krzyczy.

TADEUSZ: Tato!!!!

MUZYK: Stacja druga: wieszak. Matka!

Scena 3

OJCIEC, podłamany, cicho łka. TADEUSZ wykorzystuje ten moment, żeby dokonczyć to, co robi. Smutek OJCA się pogłębia.

OJCIEC: Dlaczego nie? Chcę, żeby tu przyszła. Lalu! Musi dowiedzieć się, że niewiele mi już brakuje, żeby skończyć moją melodię. Lalu, chodź do mnie! Mam ci coś do powiedzenia. Mamo, tak się boję. Tak, ja się boję. Ty odeszłaś i przyszedł strach. Nie chcę zostać z nim sam na sam... Ciiicho, ciiii... Nie odzywa się, ale ja wiem, że tu jest. Gasi mi światło. Wie, że boję się ciemności... Fiuuu! (*Gwizdże, przyjemnie*) Lala? Strach ucieka tylko, gdy myślę o tobie. Dlaczego odeszłaś? Wiesz, że potrzebuję twoich dloni, żeby odegnać

strach, że potrzebuję twoich ust, żeby się uśmiechać, twojego gimbkiego ciała, żeby poszybować w tańcu. Lalu, Laleczko... (*Spogląda na TADEUSZA, jakby zrezygnowany*). On tu jest, o tak. Zawsze tu jest, przyczajony... nie uśmiecha się... ale ja dobrze wiem, kto to jest. (*Pauza*) Mówi do mnie „Tato”. Ha! Tato! Mnie nie oszuka! (*Po cichu*) To nie jest mój syn. To Stach. To ten przeklęty Stach!... Nie. Nie będę mówić źle o twoim synu! Przyrzekłem ci, a ja zawsze dotrzymuję słowa. Ale tym razem to nie ja zacząłem się czepiać, że „postrzelony”, że „nieodpowiedzialny”! Dlaczego patrzy na mnie w ten sposób przy moim synu? Jakby to on tu rządził? Niewdzięcznik! Przyjęliśmy go przecież do rodziny, do jasnej cholery. Nie ma to jak mieszkać z chodzącą doskonałością! (...) Co? (*Zdenerwowany*) Przepraszam, kochana, przepraszam. Nie powiniensem był tego mówić. (...) Wiem, że potrzebujemy jego pieniędzy, żeby jakoś żyć. Nie smuć się, proszę. Powiedz coś... Nie mogę znieść, kiedy jesteś smutna. Nie ty. Nie odchodź. Dokąd idziesz! Dokąd idziesz, Lala! Dokąd idziesz!!! Mamo, nie odchodź...!!! Mamusiu! Nie zostawiaj mnie! Nie zostawiaj...

Wchodzi TADEUSZ. Nie udaje mu się uspokoić płaczącego OJCA.

TADEUSZ: Ciii, tato... Tato, ciisi! Mama nie żyje... mama...

TADEUSZ oddala się. Światło pada na wieszak. TADEUSZ bierze wiszące na nim ubrania i mechanicznie zakłada je na siebie, jak ktoś, kto odprawia codzienny rytuał. Podchodzi do OJCA udając matkę. Wie, że nie ma innego sposobu, by go uspokoić. Twarz OJCA rozjaśnia się.

OJCIEC: Kochana! Przyszłaś, zawsze przychodzisz... Tak bardzo ci dziękuję! Już myślałem, myślałem, że... (*Uspokaja się*) Nie, nic. Ślicznie wygladasz w tej sukience, którą ci podarowałem... (*Miękko ujmuje jej dłoń*). Wszyscy na ulicy będą się za tobą oglądać! Najpiękniejsza z pięknych. I ty chcesz być ze mną! A niech to! To nie do pojęcia, prawda? A ty cały czas słodko się uśmiechasz. Tyle się razem uśmieliśmy! Do diabła! Ten świat jest wart tylko tego, żeby się z niego śmiać. Tak ci dziękuję! (*Całuże ją w rękę*). Marmuazel, proszę do mnie. (*Porozumiewawczo*) Wciąż to lubisz, prawda?

Oboje siadają.

OJCIEC: Chcesz posłuchać? Niedługo ją skończę. (*Nuci melodię*) Jest cudowna. Najpiękniejsza z pięknych. Jak ty...

TADEUSZ-MATKA: Jak się czujesz?

OJCIEC: Dobrze. Teraz już dobrze. A ty?

TADEUSZ-MATKA *nie odzywa się. Uważnie mu się przygląda.*

OJCIEC: Ojej, jakie smutne oczy... co się dzieje?

Razem z dźwiękiem akordeonu OJCIEC wyciąga dłoń do matki, gestem zapraszającym do tańca.

OJCIEC: Chodź tu do mnie... Zabiorę cię na księżyce! Zapomnij, co ci mówił Stach. Nie myśl o pieniądzach... Jak tylko zdo będę akordeon, to zobaczysz! Cały świat rzucę ci do stóp. A po nim i księżyce!

TADEUSZ-MATKA *ucieka wzrokiem w bok. OJCIEC chwyta ją za podbródek i umieszcza jej twarz na wprost swojej.*

OJCIEC: Wcale nie są takie drogie! Gdzie tam! Wystarczą mi te pieniądze, które chowasz pod łóżkiem. Teraz już na pewno będzie i na buty dla dziecka...

TADEUSZ jednym ruchem zrywa z siebie sukienkę matki. OJCIEC przytula ją do siebie, jakby MATKA wciąż jeszcze tam była. TADEUSZ wychodzi poza wyrysowany na podłodze kwadrat i zajmuje swoje miejsce na scenie.

TADEUSZ: Mamusiu, nie. Tatuś nie wie, że od czasu, kiedy odszedł wujek Stach spędziłaś wiele nieprzespanych nocy, żeby zdobyć te pieniądze!

OJCIEC: Tańcz, Lala! Tańcz!

TADEUSZ: Nie, mamo. Nie możesz mu dać pieniędzy, tak ciężko zarobionych pieniędzy. Są dla nas! Żebyśmy mogli przeżyć! Moje nowe buty, mamo... W szkole się ze mnie śmieją, bo mi przez dziury widać skarpetki. Mamusiu...

Z drugiej strony sceny...

OJCIEC: Lala... Lalka!!!

TADEUSZ: Nie!!!

OJCIEC: Dziękuję! Lalu, jesteś wspaniała! Z tym akordeonem, tak! Z tym akordeonem cały świat rzucę ci do stóp!...

TADEUSZ: Mamusiu, nie. Nie słuchaj go! (Pauza) Tatuś nie wie, co to znaczy chodzić w dziurawych butach! Skąd ma wiedzieć? Przecież, tak jak mówi wujek Stach, on nie umie twardo stąpać po ziemi!

OJCIEC: (Nie przerywa tańca) Leć, Lala, leć!

TADEUSZ: (Płacze) Nie, mamusiu, tatuś nie wie...

TADEUSZ podchodzi do OJCA, ponownie, jednym ruchem zarzuca na siebie ubranie matki i zaczyna tańczyć z OJCSEM. Taniec dobiega końca i OJCIEC całuje swoją ukochaną.

TADEUSZ odsuwa się gwałtownie.

TADEUSZ: Tato!

OJCIEC: (Lubieżnie, igra z nią) Gdzie się podziała najładniejsza pupcia w domu?

TADEUSZ ze złością, gwałtownym gestem ściąga ubranie matki i odchodzi.

TADEUSZ: Dosyć! Dosyć! Brzydzę się tobą! Co ja robię? Dlaczego ci na to pozwalam? Ja nie jestem taki jak matka! Ja cię nie kocham, tak jak ona cię kochała. Ja... ja... (Lista telefonów alarmowych) Pogotowie: 999, Zarząd PCK: 22-326-12-86, Pomoc Drogowa: 981..., Niebieska linia: 0-800-20002 . Pomoc Społeczna...

OJCIEC-AKTOR: Stacja czwarta: Dwie Walizki. Wspólna podróż.

Scena 5

OJCIEC-AKTOR bierze drugą walizkę i stawia ją obok pierwszej. Teraz obie znajdują się na środku sceny. Pada na nie światło. OJCIEC podchodzi do walizki i siada na niej. Opowie TADEUSZOWI historię o życiu. Taki ma w każdym razie zamiar. TADEUSZ stoi przy nim, obok walizka.

OJCIEC: Synku...

TADEUSZ: Co, tato?

OJCIEC: Chcę ci opowiedzieć pewną historię.

TADEUSZ: Nie lubię historii, nudzą mnie.

OJCIEC: Pozwól mi, proszę. (Pauza) Pewnego razu był sobie chłopiec, niezwykle grzeczny, który pojechał z rodziną na wakacje, bardzo, ale to bardzo zadowolony. Pojechali nad wodę.

TADEUSZ zaczyna pakować walizkę. Ma bardzo długą listę.

TADEUSZ: Trzy koszule: żółta, niebieska i biała...

OJCIEC: Podoba ci się?

TADEUSZ: Woda?

OJCIEC: Historia.

TADEUSZ: Tak. (Wraca do swoich zajęć) Cztery pary spodni, dwie wyściowe, dwie na co dzień.

OJCIEC: A woda?

TADEUSZ: Skarpetki: pięć par. Szósta – do spania. I jeszcze... pół tuzina slipów.

OJCIEC: Woda! Dużo wody! (Podnosi rękę pod sufit) Potąd przynajmniej! I wiesz co się stało chłopcu?

TADEUSZ: Nie umiał pływać.

OJCIEC: Skąd wiesz?

TADEUSZ: Mali chłopcy nie umieją pływać.

OJCIEC: Nie, nasz chłopiec nie umiał. Bał się wody. Zaczynał krzyczeć, gdy woda zakrywała mu nogi powyżej kolan.

TADEUSZ: Ze strachu, że utonie.

OJCIEC: Dokładnie tak. Ale jego rodzice kazali mu wchodzić do wody, śmiało! Że dopóki doryka czubkami palców dna, nie ma się czego bać. (*Ponownie jakby opowiadał bajkę*) W końcu chłopiec zrobił krok do przodu, najpierw jeden, potem drugi! I nagle w krzyk: mamo!!! Matka zamarła. „Mamo, manusiu! Pomóż mi!” – krzycała biedny chłopiec.

TADEUSZ: (*Szepcząc*) Mamo, pomóż mi...

OJCIEC: „Pomóż mi!” – zawała mama do wujka. – „On się topi!” „Wyciągnij moje dziecko z wody!!! Ty przecież umiesz pływać!!!”

TADEUSZ: Na pomoc!

OJCIEC: (*Pauza*) I wtedy ściągnął buty...

MUZYK: I wtedy ściągnął buty...

OJCIEC:...I to on wskoczył do wody!

MUZYK:...To on wskoczył do wody.

OJCIEC: Na nikogo się nie oglądając! Dokładnie tam, gdzie widział go ostatni raz. Zanurzył rękę i nic! Jeszcze raz, głębiej i znowu nic! Nie dawał za wygraną, aż w końcu – „Mam go!” – krzyknął. Jest! Tutaj! I pociągnął go, z całej siły, za włosy! I zabrał ciało na brzeg, swoje dziecko. Do matki. Matka milczała. Stała obok brata, obydwoje, jakby byli ślepi i głusi, jak z kamienia. Podczas gdy ja, (*Zaczyna mówić w pierwszej osobie*) położyłem małego na ziemi i zacząłem robić mu masaż serca i sztuczne oddychanie... Oddychaj, mały... oddychaj... oddychaj! (*Brak mu tchu, dusi się*)

MUZYK: Oddychaj, oddychaj, oddychaj...

TADEUSZ: (*Jakby nagle oprzytomniał. Jakby nagle zdał sobie sprawę z prawdziwego sensu bajki*) Tato... Tato??? Ty... Dlaczego nigdy mi nie powiedziałeś?

Cisza. Słyszać jedynie oddech OJCA.

OJCIEC: (*Przechodzi do innej opowieści*) Ojciec zawsze mu mówił: „położ się na wodzie”. A chłopiec nie chciał, bał się, że się znowu zacznie topić. Jakby można było się utopić dwa razy! A ojciec – „spokojnie się położ”, „ja zawsze będę przy tobie”.

MUZYK: Przy tobie. Zawsze.

OJCIEC: Zobacz, będę ci trzymał rękę pod brzuchem.

TADEUSZ: Tak, tato. (*Miękko, gotowy do wzięcia udziału w historii*) Nie puszczaj, tato!

OJCIEC: Zaufaj mi. Nie puszczę cię. Zawsze cię będę trzymał, o tak właśnie.

TADEUSZ: A jak zabierzesz rękę, to co wtedy?

OJCIEC: Tym się teraz nie przejmuj. Pracuj ramionami: najpierw jedno, potem drugie. Na przemian. Jak wiatrak.

TADEUSZ: Tak?

OJCIEC: Bardzo dobrze, właśnie tak! A teraz nogi, w górę i w dół!

TADEUSZ: Patrz, tatusiu! Ja pływam! Jak wiatrak!!! Jak wiatrak!!! Nauczyłem się, tato!!!

TADEUSZ pływając przemierza scenę z jednej strony na drugą. Z lewa na prawo, z tyłu do przodu i z powrotem. Rozpiera go radość.

TADEUSZ: Nauczyłem się!!! Umiem pływać!!!

OJCIEC: (*Wzruszony*) Tak, synu. Nauczyłeś się. Jesteś mistrzem w pływaniu (*Śpiewa*).

TADEUSZ: (*Wypróbowując rozmaite style pływania*) Patrz! Patrz jak dobrze pływam!

OJCIEC: (*Nagle zmęczony*) Tak. Pływasz. Pływasz sam. Już nie muszę ci trzymać ręki pod brzuchem. Widzisz?

TADEUSZ: Tato...

OJCIEC: Tak?

Nagle milkną oboje. Cisza. Pogrążyli się w swoich myślach. Są zmęczeni, jakby właśnie dokonali nadludzkiego wysiłku.

TADEUSZ: Tato... ty...

OJCIEC: Ciii... czas spać.

TADEUSZ: Tato... ty nie umiesz pływać. A wujek Stach...

OJCIEC: Stach, łach, pach, mach...

TADEUSZ:...Był bardzo dobrym pływakiem. A ja nigdy nie widziałem cię w wodzie głębszej niż po pas.

OJCIEC: Czego nie widziałeś?

TADEUSZ: Ciebie. Jak pływasz.

OJCIEC: Jutro popłyniesz daleko... zobaczysz!

TADEUSZ: Tak.

TADEUSZ podnosi się i otwiera walizki.

Aitarekin bidaian obran badago zuka/hika tratamenduen alternantzia bat oso efektu interesgarria sortzen duena. Semeak aitari, ohi den bezala, zuka egiten dio obra osoan. Baita semeak nagusiari eta zahar-etxeko zuzendariari ere, edota amari, edo haren oroitzapenari, hitz egiten dionean. Aitak semeari, ordea, normalean hika egiten badio ere, obraren zenbait unetan zuka egiten hasten zaio. Arantxa Iturberi horren zergatia galdetuta, erantzuna izan zen berariaz bilatu-tako efektu bati zegokiola: alegia, aitaren berezko joera semeari hika egitea zela, baina gaixotasunak eragindako gainbehera-bidean, izaeraren eta oroimenaren desintegrazio-prozesu horretan aurrera egin ahala, semearkin duen harremana ere ezabatzen, galtzen hasten dela, eta une horietan zuka egiten hasten zaiola. Argi ikusten da efektu hori testuan, eta behin zergatia ezagututa, iruditu zitzai-gun hondabide horren mugarrien marka esanguratsua eta bikaina zela. Monika Czerny-rentzat, adibidez, hika/zuka tratamenduen erabilera eta balio afektiboaren erakusgarri argia gertatu zen.

Alde horretatik, noski, garrantzitsua zatekeen efektu hori itzulpenetan islatzea. Nola egin, ordea? Mintegian genituen hizkuntzek ez zuten berez aukera hori eskaintzen, eta, horren faltan, beste baliabideren bat erabiliz konpentsazio moduko bat bilatzeari artifizial eta desegoki iritzi genion. Ez genuen, beraz, irtenbide egokirik aurkitu, eta, pena handiz, galeren atalean jaso behar izan genuen hika/zuka tratamenduen alternantziarena.

Bélgica Bruselas, Alemania Berlín, España Madrid

Obra honen beste ezaugarri bat, gure eguneroko hizkuntz jardunaren isla fidela, gaztelania tartekatzearena da, eta gaztelaniazko hitz edo esapide batzuk erabiltea. Kultur markatzat jo genezake. Horren adibide dira, esaterako, aitak amari *Rubia* deitza, *kieto!* eta *don-perfektoren* moduko zenbait esapide agertzea eta, obraren pasarte batean, semea Europako herrialde eta hiriburuen zerrenda buruz ikasia errezitatzan hastea, gaztelaniaz, lasaitze aldera:

PATXI:...joan egin da. Gure aitari bost! Nire oinetakoak, zure nekeak edo Mai-teren malkoak! Bost! (*Lasaitze aldera, hasperen egin eta Europako kapi-talak errezitatzan hasten da*). Albania Tirana, Alemania Berlín, Austria Viena, Bélgica Bruselas, Bielorrusia Minsk, Bosnia Herzegovina Sarajevo, Dinamarca Copenhague, España Madrid, Finlandia Helsinki, Francia París, Grecia Atenas, Hungría Budapest, Irlanda Dublín, Italia Roma... Ikusten, ama? Ez naiz behin ere nahasten.

Berezitasun hori Hego Euskal Herriko egoerari hain lotua egonik, ez zen erraza beste hizkuntza eta kulturetan islatzea. Mintegian jardun zuten lau itzul-tzaileak ados agertu ziren egoera baliokide bat bilatzen hastea naturaltasunaren kaltean zatekeela, baita katalanez ere, nahiz hizkuntza horren kasuan uler zite-keen errazen. Azkenean, ez zuten bide horretatik jo.

Alemanian, *rubiak* ez dira batere exotikoak. Inglaterran, jabier-muguru-zek biolina jotzen dute

Mintegian denak ados egon ginen *Aitarekin bidaian* obrak jorratzen duen gaia unibertsala dela. Lehen begiratuan, obra hau edonon kokatua egon zite-keen, eta ez ezinbestean Euskal Herrian. Haatik, sakonxeago begiratzen hasita, hemengo kulturari lotuta dauden hainbat ezaugarri aurki daitezke beste hizkun-tza eta kulturetarra iraultzerakoan aintzat hartu beharrekoak direnak. Batzuk mintegiko koordinatzaileak seinalatu zituen; besteak, berriz, mintegiko auzola-nak atera zituen argitara, itzultzale bakoitzak bere kulturarekiko arrotzak edo, behintzat, bereziak, jotzen zituen zenbait kontu aipatu ahala. Zenbait bitxikeria mahairatzeko parada eman zigun horrek. Ikus, bestela:

- Lehenik, izenak berak: Patxi Olazagutti, Maite, Juan, Miguel Arruti...
- Erakunde, denda eta abarren izenak, eta telefono zenbakien egitura: Leja-rreta okindegia, larrialdien telefono zerrenda (SOS deiak 94-667788, Guru-tze Gorria 666554433, Dya..., Emakunde 696696, Emaus...).
- Semeak aitaren maleta prestatzen duenean, zahar-etxera eramateko, hona-koa esaten du:

PATXI: Bai. (*Berera*) Lau pare galtza, bi tergalezkoak eta beste bi panaz-koak.

Autoreak azaldu zigun zer intentziorekin idatzi zuen esaldi hori: haren gura-soen belaunaldian, panazko galtzak lanerako galtzak ziren, astegunetan janztekoak; tergalezkoak, berriz, igande eta jaiegunetan janztekoak. Mintegian jakin genuenez, ordea, Polonian eta Inglaterran alderantziz litzateke.

- Aitak, obraren zenbait ataletan, emazteari hitz egiten dionean “ama” esaten dio, gurean nahiko ohikoa denez (nahiz den-denak ez ginen horretan bat etorri), seme-alabak erreferentziatzat hartuta bezala. Horrekin, idazlearen esanetan, aitaren desintegrazio-prozesu hori islatzeko beste marka bat sartu nahi izan zuten, gainbehera-prozesu horretan “umetu” ahala aitak emaztearen figura amarenarekin nolabait berdinduko balu bezala. Efektu hori bere horretan beste hizkuntzetara iraultzen saiatuz gero, ordea, oso arraroa izango omen zen emaitza, eta beste modu batzuk bilatu zituzten.

- “Plaza”ren kontzeptua, eta kontzeptu horrek berekin dakartzan guztiak:

AITA: Maitea! Etorri zara, beti etortzen zara... Eskerrik asko! Uste nuen...
uste nuen... (*Lasaitua hartuz*) Ezer ez. Bai apaina zaudela, nik oparitutako soinekoarekin... (*Eskua hartzen dio goxoki*), plazako begi guztiak zugan biltzeko moduan! Ederrenetan ederrena. Eta zuk nirekin nahi! Kaben zotz! Ez da erraza ulertzen, ezta? Eta zu bitartean barre goxoan. Zenbat barre egin dugun elkarrekin! Ze demonstre! Mundu honek barrezka hartzea baino ez du merezi. Eskerrik asko. (*Muxu ematen dio eskuan*) Zatoz, mademoiselle. (*Konplizitatez*) Oraindik gustatzen zaizu, ezta?

David Lindemann-en esanetan, Alemanian ez da plaza-kultura hori ezagutzen, eta erreferentzia hori arrotz gerta dakioka alemaniar irakurle/ikusle bati. Beraz, alemanerako itzulpenean *plaza* hitz arrotza, garriatzen duen zama kulturalarekin batera, bere horretan mantentzea erabaki zuen.

- Patxi semearen egoera: zenbait kulturatan, batez ere Alemania eta Erresuma Batukoan, Patxiren adina lukeen seme bat oraindik ere aita-amen etxearen bizitza ulertzina gertatuko litzateke, edo oso arraroa, behintzat. Diana Draper-ek azpimarratu zuen britainiar ikusle baten begietara, euskal ikusle baten begietara baino “gizagaixoago” agertuko litzatekeela Patxiren irudia. Eta, bestalde, osaba Juanen pertsonaia, arrebaren etxearen biziko litzatekeen anaiarena (mutilzaharra?) ere ez litzatekeela erraz ulertuko.

David Lindemann-en iritziz, aita zahar-etxe batera eramatea, kulturalki, ez da Euskal Herrian bezain gaizki ikusia Alemanian, ezta hain gogorra edo muturreko, hango gizon gazte baten begietara. Polonian eta Katalunian, berriz, normaltzat joko lirateke egoera eta pertsonaia horiek.

- Aitak *Rubia* deitzen dio emazteari, nahiz “egiaz” beltzarana izan, edertasunari loturiko bereizgarri moduan, beste emakumeengandik apartekoa dela azpimarratzeko edo. Alemanian, ordea, ilehori deitzeak inor gutxi bereiziko luke, halakoa baita gehiengoa herrialde horretan. Beste hizkuntzen kasuan ere luze eta zabal eztabaidatu zen testu osoan zehar agertzen den marka horren itzulpen-arazoa. Azkenean, ordea, bakoitzak aurkitu zuen bere hizkuntza eta kulturaren neurriko soluzioa.
- Obraren pasarte jakin batean, aita-semeak irain-festa batean buru-belarri murgiltzen dira, osaba Juanen lepotik. Halako batean, “bai, hirekin ari nauk, Satanas nauk!” esaten du aitak. Monika Czerny-k adierazi zuenez, deabruari eginiko erreferentzia horrek oso efektu bortitzia izango luke polonieraz, bere horretan irauliz gero, eta ezinbestekoa omen zen nolabait leuntzea.
- Aitak semeari kontatzen dion “ipuinean” ur-putzu bat ageri da. Ur-putzu hori beste hizkuntzetan zer izan zitekeen ez zen asmatzen erraza izan, istorio horretan kontatzen den egoera sinesgarri izateko moduan. Inglaterran, adibidez, pentsaezina da urtegi batean bainatzea, legez kontrakoa bailitzateke. Buelta ugari eman behar izan zizkion Diana Draper-ek kontu horri, azken soluzio modura *lake of sparkling water* proposatu arte.

Antzerki-testu bat beste hizkuntza batera iraultzerakoan, itzultzailak askatasun handiagoz jokatu ohi du —betiere zuzendariaren esanetara, noski—. Helburua naturaltasuna lortzea izaten da, eta, sarritan, arroztasuna eragiten duten markak egokitzapen bidez ezabatzera jotzen da. Zilegi da, ordea, zuzendariak hala nahi izanez gero, arroztasun-seinale horiei eustea, antzezlana nonbait atzerrian gertatzen dela islatu nahi bada. Gakoa, betiere, koherentziari eustea litzateke. Alegia, ez litzateke koherentea pertsonaien izenak aldatzea, erakunde edo saltokien izenak aldatu gabe, adibidez. Egiten dena egiten dela, testuak sistema koherente bat osatu behar du.

Mintegiko antzerki-aditurekin izandako solasetan argi geratu zen kontu horretan azken hitza zuzendariarena dela, baina, abiapuntu modura besterik ez bada

ere, itzultzaleak proposamen bat helarazi behar dio hari. Askatasuna hartzeko gonbita eginik, David Lindemann-ek eta Diana Draper-ek alderantzizko jarre-rak islatzen dituzten hautuak egin zituzten beren proposamenetan. Hala, Lindemann-ek arroztasunari eustea erabaki zuen obra hau Alemanian muntatu nahi lukeen zuzendariari aurkezteko abiapuntu gisa. Alemanezko bertsioan, beraz, Euskal Herrian kokatua izango litzateke istorioa, pertsonaien izenak bere horretan mantenduko lirateke, bai eta euskal kulturari loturiko markak ere. Aldiz, Diana Draper-ek egokitzapenaren hautua egin zuen, eta obra Erresuma Batuan kokatzea erabaki. Hala, pertsonaien izenak aldatu zituen (*Patxi Michael* bihurtu zen, eta Maite, berriz, *Clare*, izen bakoitzari loturiko konnotazioen baliokide-tza-ariketa ezin interesgarriago eta argudiatu baten ondoren). Bestalde, aitaren pertsonaiak akordeoiarekin duen harremana, haren izaera ameslaria eta errealitytetik urrun samar dagoenaren isla, ingeles kulturan askoz hobeto ulertuko omen litzateke biolinarekin lotuta, akordeoiarekin baino. Ondorioz, Jabier Muguruza-ren pertsonaiak, bertsio ingelesean, biolina joko luke.

Hautsi-mautsiak eta galdu-irabaziak: artisauaren haztaga

Duela bi urteko edizioan, jatorrizkoa eta itzulpenak baliokideak ote ziren aztertzeko irudi metaforiko bat sortu genuen, mintegian zehar geure ondoan gorde genuena:

(...) *gure artean eserita jarri genuen artisau saiatu bat, zeinak erreberentzia handiz esku artean hartuko baitzuen Jatorrizko Obra. Esku trebe ikasiz hazztatuko zuen Obra, haren pisua neurtzeko, eta kontu handiz aztertuko zituen haren forma, kolore, irudi, usain, ehundura, soinu eta itzal oro, agerian jarritakoak eta ezkutuan utzitakoak, artelan hura den bezalakoa egiten duen ezaugarri oro atzman eta ulertu nahian. Behin bereizgarri guztien inventarioa eginik, hor hasiko da, beste material arras desberdin bat eskuetan hartuta, antzeko forma, kolore, irudi, usain, ehundura, soinu eta itzal sortzeko lanean. Beste material honetaz duen ezagutza sakona lagun, Obraren ezaugarriak bir-sortzen hasiko da, jakinik jatorrizkoaren sakongune edo irtengune guztiak ez direla itsu-itsuan erreprroduzitu behar, material honek ez bailitzke beharbada guztiak onartuko. Pisutsuegia litzateke emaitza, edo arinegia, edo distorsionatua. Badaki materialak oso-berea-egitekoak izaten direla, eta zenbaitean —artisauak bibotz-minez ikasi eta onartu behar izan du— ezinezkoa izaten dela material baten ezaugarri jakin bat beste batean lortzea, eta une lazgarri horietan osotasunaren pisua gordetzea izaten dela garrantzitsuena, eta han goian jarri ezin*

izan duen koxka horren pisua beheraxeago eranstea badaukala, materialak onartuko dion modu batean. Eta horrela jardunez, egonarri infinitoaz, Obra bir-sortzen du, ez derrigorrez forma, kolore, irudi, usain, ehundura, soinu eta itzal berberekin —banaka hartuta—, baina halako moldez non Obra bir-sortuak ikuslearen begietan eragingo duen proiekzioa Jatorrizko Obrak eragingo lukeenaren oso antzekoa izango baita.

Bidaia bat Itzultopiara, I. Otegi. Senez 38 (2009)

Aurtengoan ere, mahai gainean jarri dugu gure artisau saiatuaren hazzaga, jatorrizkoak ezartzen dituen itzulpen-arazoei emaniko irtenbideak baloratzeko asmoz, eta ezinbestean galera zegoela onartzen genuen kasuetan, konpentsazioren bat egiteko aukerarik ba ote zegoen aztertzeko. Dagoeneko aipatu ditugu galera horietako batzuk, zeinenztat ez baikenuen, gehienetan, konpentsaziorako biderik aurkitu. Hala ere, efektuen baliokidetzaren ideia eta hazzagaren akuilua begien bistan edukitzeari lagungarria iritzi zioten itzultzaillek.

Orobat oso baliagarritzat jo zituzten itzultzaillek mintegi osoan izandako eztabaidak eta egindako auzolana. Itzulpen-arazo jakin baten aurrean, azken soluzioak hizkuntza batetik bestera “esportatzea” ezinezkoa izan arren, egindako bidea oso lagungarria izan daiteke beste hizkuntza baten kasuan egoki izan daitekeen irtenbide bat aurkitzeko. Luxutzat jo zuten denek ere auzolanerako aukera, itzultzailaren ohiko jardun bakartiaren aldean.

Itzulpenaren kalitatearen auzia, alegia, *Lortuko al luke itzulpen honek jatorrizkoaren efektu berberak eragitea xede-hizkuntzako irakurle/ikusleareneng?* galdera oraingoan ere erantzunik gabe gelditu zen, hainbat arrazoirengatik. Lehenik, itzulpenak ez dira erabat bukatzen mintegian, handik egun batzuetara baizik, mintegian mahairatutako hari-mutur guztiei soluzioa ematen dionean itzultzaillek. Bigarrenik, litekeena da itzultzaila bera ez izatea egindako lana epaitzeko pertsonarik egokiena. Eta, hirugarrenik... ba al du erantzunik galdera horrek? Izan ere, itzulpena misterio bat da. Bidean zenbait galera izan zituzzela onartuagatik, itzultzailak pozik agertu ziren egindako lanarekin eta lortutako emaitzarekin. Batzuen esanetan, itzulpen bidez lortutako testua beste testu bat da, baina ez jatorrizkoa baino okerragoa. *Bere funtzia betetzen du.*

Antzerki-testu baten kasuan, badago laugarren alderdi bat ere aintzat hartu beharreko: nola baloratu testuaren kalitatea, antzezlanaren muntaketa-prozesuaren galbahetik igaro ezean? Sutan jartzean probatzen omen da eltzea nolakoa

den, eta, kasu honetan, zuzendaria, aktoreak eta ikusleak lirateke itzulpen bidez bir-sorturiko testu berri horien sua.

Guk izan genuen su txiki bat, Europa Jauregian, irailaren 29ko iluntzean. Iritsi baitzen mintegiaren azken eguna, eta, horrekin, jendaurreko ekitaldia. Agurtzane Intxaurragaren gidaritza abilaren eskutik, une batez aktore bihurtu ziren itzultzaleak, eta, batek daki nola, di-da batean benetako ikuskizun bat eraiki zuten denen artean. Zail da egun hartan gertaturikoa kontatzen. Bertara hurbildu ziren ikusle urriek *Aitarekin bidaian* obraren antzezpen berezi bat ikusi zuten, sei hizkuntzen arteko oihartzunek eta Jabier Muguruzaren akordeoiaren doinu malenkoniatsek ondua. Edertasunez beteriko une hunkigarriak, ikusleoi harri-dura, oilo-ipurdia eta malko bat edo beste eragin zizkigutengak.

Le théâtre est art de l'instant. Donc de la mort. Horixe sentitu nuen nik oihartzun eleanitz haiiek isildu ziren unean: heriotza txiki bat, jabetu nintzenean amaitu berri zen hora ez zela, ziurrenik, sekula errepikatuko. Halakoxea da, ordea, antzerkia.



Antzerki itzulpenaren berezitasunak

JULIA MARÍN ARTEAGA

Antzerkian itzultzaitzaile eta zuzendari laguntzaile

Lantegi honetan parte hartu duten lau itzultzaitzaileek, oro har, prosa itzultzen jarduten dute. Horregatik, hasteko, interesgarria iruditu zait aipatzea zertan bereizten diren nobelaren eta antzezlanaren itzulpenak. Alde horretatik, bi alderdi hauek jorratu ditut: imajinarioaren interpretazioa eta esatezko testuaren ezaugarriak. Aurrerago, aukera baliatu dut aldarrikapen hau egiteko: premiazkoa da itzultzaitzaileak parte hartzea antzezlanera eszenaratzeko prozesuan. Eta, amaitzeko, azpimarratu nahi izan dut antzerkian testu idatziak adinako garrantzia duela aktoreek testua bera nola esaten duten; are gehiago prosodia normalizatu gabe daukan gurea bezalako hizkuntza minorizatu batean.

Nobela baten itzulpena

Hau da itzultzaleon ohiko prozedura.

Testua paperean jasotzen duzu. Irakurri, erregistroari, tonuari eta estiloari tankera hartu eta idazlearen imajinarioa irudikatzen hasten zara zure buruan: nolakoak diren pertsonaiak, zer harreman daukaten haien artean, zer egoera bizi dituzten, zer espaziotan mugitzen diren, nolakoak diren tokiak, objektuak eta abar.

Behin imajinario hori garbi samar duzunean, zure interpretazioa egin eta, euskarazko hitzak erabiliz, forma ematen hasten zara: zure bertsioa idazten duzu. Eta bertsio hori behin betikoa da, nobelaren itzulpen prozesua liburua inprimate-gira eramatean amaitzen baita.

Gero, irakurleak hartzen du liburua, eta hitzak irakurtzen doan neurrian, idazle/itzultzaiaren imajinarioa deskodetu eta berea eraikitzen joaten da.

Prozesu osoan erabiltzen den euskarri bakarra papera da, parte-hartzale guztiak (bai idazleak, bai itzultzaiak, bai irakurleak) bakarkako lana egiten dute, eta lan horretan irudimenak sekulako garrantzia dauka.

Antzezlan bat euskaratzea

Antzezlan bat itzultzean, prozedura korapilatsuagoa da, alde nabarmenak ditu nobelaren itzulpenarekin konparatuz gero.

Abiapuntua: itzulgaia

Nik parte hartu izan dudan antzezlan gehienetan (berrogei bat), sorburu hizkuntza gaztelania izan da, baita jatorrizko obra beste hizkuntzaren batean sortua denean ere. Arrazoia: zuzendariak (erdalduna normalean), gehienetan, gaztelaniaz eta euskaraz muntatu behar du obra, eta gaztelaniazko bertsioa baliatzen du bere ikuspuntuaren araberako egokitzapena egiteko. Dena dela, jatorrizko bertsioa ere erabiltzen da kontsulta material gisa.

Batzuetan, itzulgaia obra muntatzen hasi baino hilabete batzuk lehengo pasatzen dizute, eta halakoetan testu soila da jasotzen duzuna: liburua edo libretoa. Kasu horretan, prozesuak, imajinarioa eraikitzeari dagokionez, antz handia dauka nobela bat itzultzarekin. Alde bakarra: zu idazten ari zaren hori ez dela paperean geratuko. Aktore batzuek ahoz interpretatuko dute eta ikusleek begi-bezarritz jasoko.

Beste batzuetan, antzezlanaren gaztelaniazko bertsioa paperean ez ezik muntaturik ere badago, eta zure zeregina euskarazkoa idaztea da. Hor, imajinarioa sortzeko garaian, informazio gehiago daukazu testuaz gainera: obra ikustera joan zaitezke edo DVDan ikusi. Eta irudimen lan gutxiago egin behar duzu, imajinarioa gorputzua baitago dagoeneko. Zure eginkizuna izango da hitza taldeak sortu duen imajinario horren zerbitzura jartzea.

Inoiz zorteko zaude eta itzulpena egiten hasi aurretik zuzendariak garbi dauka nola eszenaratuko duen obra. Hartara, zuzendariarekin hitz egin eta aukera daukazu haren irizpideak bertatik bertara ezagutu eta idazteko orduan kontuan hartzeko.

Gerta daiteke ere itzultzen hasi baino lehenago zuzendariak jatorrizko bertsioaren egokitzapena berridatzia izatea obra publikoarengana hurbiltzeko helburuarekin: laburtu, inguruneko erreferentziak etxekotu/Euskal Herrira ekarri (pertsona eta leku izenak, hitz jokoak, umorea, ironia...). Edo, obra klasikoa iza-nez gero, igual erabaki du estiloa eguneratzea. Halakoetan, itzulgaia egokitzapen hori izango da, eta beraz zure itzulpena gehiago hurbilduko da taularatuko den bertsiora.

Imajinarioaren interpretazioa

Itzultzaleak, ordenagailu aurrean ari denean, antzezlanaren bere interpretazioa egiten du; baina, nobelan ez bezala, interpretazio hori ez da izango behin betiko bertsioak jasoko duena.

Antzezlan baten eszenaratzeak ez baitu kontatzen egilearen edo itzultzalearen imajinarioa, baizik eta zuzendariarena. Horixe da zuzendariaren betebehera: erabakitzea zer komunikatu nahi duen obra horren bidez; zer giro sortu nahi duen oholtza gainean; nola gorputzu nahi dituen pertsonaiak; nola nahi duen publikoak ulertzea ideia bakoitza; zer mugimendu egingo diren eszenan; nolakoak izango diren espazio eszenikoa, jantziak, musika eta abar.

Eta hor dago aktoreen lana ere, azken batean haien dira pertsonaiak haragizko izaki bihurtuko dituztenak. Itzultzaleak, bere bertsioa idazten ari denean, ez daki aktoreek nolako pertsonaiak sortuko dituzten, zer joko eszeniko proposatu tuko dituzten...

Itzultzaleak kontziente izan behar du etxearen egiten ari den interpretazioa ez dela zirriborro bat besterik. Bakarka egindako lan hori hazi bat baino ez da. Esan daiteke itzultzaleak idatzi duen testua 2Dko (bi dimensioko) unibertsoa dela: irudimenean geratzen da; eta antzezlan tauraratzean, helburua 2Dko testua 3Dra pasatzea da, testuak deskribatzen duen imajinarioa gauzatu/altxatu/gorputzu egin behar baita eszenatokian, unibertso oso bat sortu oholtza gainean. Eta lan hori taldean egiten da.

Esatezko testua

Itzulpena egiteko prozedura edozein dela ere, antzezlan bat itzultzeak badu bere-berezko ezaugarria: esatezko testua da ekoiztu behar duzuna.

Ahozkoaren zerbitzari behar du izan idatziak aktorearen ahoan funtzionatu eta entzulearen belarriak gozatuko badu. Beraz, idazteko orduan, ahozko hizkera naturaletik gertu ibili beharko du itzultzaila.

Niri maiz egokitu zait beste itzultzai batek egindako bertsioa egokitu beharra (Euskadi Literatur saria irabazitako bertsioak batzuk), konpainia elkartu denean mahai baten bueltan testuaren lehen irakurketa egiteko aktoreek arazoak baitzitzuten paperezko hitzak ahots gora esateko.

Eta horrekin ez dut esan nahi itzulpen kaskarrak egiten direnik. Hartzen duzu testua, irakurri eta badirudi funtzionatzen duela; eta egia da, funtzionatzen du, baina paperean. Papererako egokia izateak, ordea, ez du bermatzen testuak ahozko erregistroari dagokion naturaltasuna izatea.

Interesgarria litzateke esatezko testuaren ezaugarriak ikertu eta deskribatzea. Interesgarria ez ezik, premiazkoa ere bai; gaur egun antzerkiaz gainera ugari baitira testu idatzi batean oinarritzen diren ahozko jardunak.

Lana sistematizaturik ez badaukat ere, hona hemen nire susmoetako batzuk:

- Idazleak eta itzultzaleak oso diziulinatuak gara testu idatzietan: hizkera batua erabiltzen dugu eta zorrotz betetzen ditugu ustez idatziari dagozkion arauak. Ahozko hizkerak arnasa eta askatasun handiagoa behar ditu.
- Sintaktikoki nahiko lotuta ibiltzen gara jatorrizkoari, eta horrek era-ginda, batzuetan esamolde arrotzak idazten ditugu. Adibide bat: *gustatzen zatzaizkit*.
- Hitzak ordenatzeko orduan, ez diogu gure buruari baimenik ematen ahoz lasai asko eratzen ditugun hurrenkerak idazteko, esate baterako, galde-gaia aditzaren ondoren emateko, hala jokatuz gero esaldi anbiguoa idatziko ditugulakoan. Eta ez dugu arrazoi faltarik; izan ere, idatziz unitate bana kokatzen badugu aditzaren bi alboetan, litekeena da zehatz-mehatz ez jakitea bietako zein den galdegaia. Baino ahozkoan, idatzizkoan ez bezala, intonazioaren laguntza daukagu galdegaia nabarmendu eta anbiquotasuna hausteko, eta beraz, askeago joka dezakegu.
- Joera daukagu esaldi korapilatsuak eta erlatibo kateak idazteko. Edo horretaz jabeturik esaldi laburrak eratzeko beharra aldarrikatzen dugu. Nire ustez, ez dago arazorik esaldi luzeak erabiltzeko, baldin eta ahoz esan eta belarritz jasotzeko moduko periodo laburretan antolatzen baditugu, eta

periodo horien mugak argi bereizita eta behar bezala lotuta ematen badi-tugu. Esaldi laburren aldeko hautuak arrisku nabarmenak ditu: batetik, sin-pletu egiten du pentsamendua; eta bestetik, testua interpretatzeko orduan, behartzen gaitu esaldi guztiak doinu berarekin esatera, eta horrek monoto-nia handia sortzen du belarrirako.

Itzultzalea ere taldekide

Orain arte esan ditudanak antzezlanaren lehen bertsio idatziari dagozkio. Baino lehen adierazi dudan bezala, 2Dko bertsio idatzi hori antzezlanaren zirri-borro bat baino ez da, abiapuntu bat besterik ez, talde lanean 3Dko unibertsoa eraikitzeko balio izango duena.

Hitza ere antzezlanaren beste osagaietako bat da, zuzendariaren ikuspuntua den bezala, edo aktoreen interpretazio lana, edo jantziak, argiak, atrezzoak eta abar. Eta horregatik zentzuzkoena litzateke baten batek bere gain hartzea testua moldatzea entseguetan sortzen diren baldintza berrietara, testua idatzi edo itzuli duena bera bada are hobeto, baina ahaztu gabe zeregin hori burutzeko ez dela nahikoa hizkuntz gaietan aditua izatea, behar-beharrezko da ezaguera gutxie-neko bat ere testu interpretazioaz.

Alabaina, antzerkian eta fikzio lanetan, oro har, ez da inor egoten testuari segimendua egiteko, gehienez ere hizkuntz komisario bat kontratatzen da aktoreen hizkuntz zuzentasun gramatikala kontrolatzeko. Gogoan dut, adibidez, 2008ko apiril aldean nola zabaldu zen ItzuLen bitartez lan eskaintza hau pelikula bat egiten ari zirela eta: “Aktoreen euskara zuzentzeko euskara zuzentzaile bat behar dute”.

Dena dela, gaur egun jokabiderik ohikoena izaten da, behin testua idatzita/itzulita dagoela, zuzendariaren eta aktoreen esku uztea, eta haien erabakitzearren eraikitze prozesuan zer aldaketa egitea komeni den. Imajinatu zer izango litzatekeen, esate baterako, jantziekin modu horretara jokatzea: pertsona bat kontratatu jantziak diseinatzeko, eta hark bozetoak egin ondoren konpainiaren esku utzita, zuzendariak eta aktoreek etxearen jostea arropa guztiak.

Hitza zaintzeko inor ez egoteak baditu bere arriskuak:

- Batzuetan, entseguak hasterako, aktoreek paperean dagoen bezalaxe, hitzez hitz ikasten dute testua buruz, eta horren gainean hasten dira gero eszenato-

kian 3Dko unibertsoa eraikitzen. Horrek zurruntasuna ematen dio interpretazioari, hitza egokitutako gabe gelditzen baita, garatu gabe. Eta askotan kontraesanak sortzen dira: intentzioek eta gorputzak gauza bat komunikatzen dute eta hitzek beste bat.

- Bi bertsio muntatzen direnean (hegoalde honetan, euskaraz eta gaztelaniaz), normalean aurrena gaztelaniazkoa prestatzen da. Hor finkatzen dira emozioen eta mugimenduen partiturak, eta partitura horiek berak erabili nahi izaten dira gero euskarazko bertsioan ere. Horrek dakar euskarak erabat makurtu beharra gaztelaniara: hitzak euskaraz esaten badira ere, erdal doinua da iristen zaiguna.

Edo sinkronizazio arazoak sortzen dira hitzaren eta emozioaren, mezuanen eta mugimenduaren artean. Adibide simple bat jartzearren, demagun gaztelaniaz *Has llegado tarde* esaldia dagoela testuan. Aktoreak *tarde* hitza dauka intentzioa jartzeko eta keinu jakinen bat gehituko dio agian (ordularia seinalatzea, esate baterako). Irizpide horien arabera finkatzen du gaztelaniaz esaldiaren doinua. Euskarazkoa egitean, *Berandu iritsi zara* esan behar denean, aktore batzuen joera da *zara* hitza baliatzea *tarde* hitzarekin egin duen gauza berbera egiteko.

- Testuari bizitasuna emateko, umorean oinarritutako joko eszenikoak asmatzen dira entseguetan, eta ondorioa gaztelaniaren interferentziez jositako antzezlana izan ohi da, bizi gaituen diglosiaren lekuko.

Nire iritziz, itzultzaila ezinbesteko pieza da antzezlan baten makinerian. Haren eginkizuna: hitza mimatzea prozesu osoan; hitz egokiak bilatzea taldea sortzen ari den unibertsu berri horretarako; testua pentsamenduaren, emozioen eta egoeren zerbitzura jartzea; begiratzea zer hitzek eta zer sintaxi formak laguntzen dioten aktoreari organizidadea bilatzen eta zeinek ez; ahal dela euskara bera ere erabiltzea jolas eszenikoak sortzeko, hala nola, euskalkiak erabiliz. Alegia, hitzez traje dotore bat jostea prozesuan sortzen diren beharrizanen neurriira.

Esatearen garrantzia

Aktoreak bere egin behar du testua eta pertsonaiaren ahoan jarri: berak sineshti eta publikoari sinetsarazi. Gizakiok hitzak eta gorputza baliatzen ditugu emozioak eta pentsamenduak espresatzeko. Izaki osoak gara, eta norabide berean,

lerroan, jarri behar ditugu hizkuntza, burua, emozioa eta gorputza arimarekin komunikatzea lortuko badugu.

Hona Konstantin Stanislavski (1863-1938) aktore, eszena zuzendari eta antzerki pedagogo errusiarak mundu osoan erreferentetzat hartu ohi den bere interpretazio metodoan zer dioen hizkuntzak aktorearen sormen lanean duen garrantziari buruz:

Aktore batek bere hizkuntzaren xehetasunik txikiiena ezagutu behar luke. Zertarako balio du emozioekin lan sakona egiteak gero emozio horiek adierazteko hizkera eskasa erabiltzen baldin bada?

Aktoreak maisutasunez menderatzen baditu testuan perspektiba sortzeko metodoak eta hizketaren planoak, haren mintzamoldea liluragarri bihurtzen da. Horixe da modu bakarra benetako artelan baten ñabardura guztiak transmititzeko.

Ezin dugu aktorea bakarrik utzi langintza horretan. Aktoreak laguntza behar du eta ez hizkuntz komisarioak. Izan ere, hitzaren gainerako beste profesional gehienek bezala (esatariak, aurkezleak, hizlariak...), irizpide argirik gabe, intuizio hutsez jarduten du kamera edo mikrofono aurrean zein eszenatokian.

Eta gainera, ezin dugu ahaztu gaur egungo errealitatean mota askotako aktoreak daudela hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari dagokienez: erabat erdalduenak; euskaldun/erdi-euskaldun berriak; ikasketa guztiak euskaraz burutu arren testu bat naturaltasunez aldarrikatzeko arazoak dituztenak; euskal sena badunenak baina beti euskalkian jardun dutenez zalantzak dituztenak euskara batuan aritzeko; euskaldun zahar alfabetatu gabeak.

Hizketa ederraren jabe izatea erabateko zientzia da eta, ondorioz, bere lege propioak behar ditu.

- Zuzena behar du: gramatika akatsik gabea eta Euskaltzaindiaren ahoskera arauak betetzen dituena.
- Jatorra: euskal doinuaren arabera aldarrikatua.
- Komunikatiboa: mezua ulertzeko moduan helarazten duena.
- Naturala eta bizia: bat-bateko solasaldian arituko bagina bezala.

Baina nola eskatuko diogu aktore/hizlari bati interpretazioak hain berezkoak dituen zeregin horiek guztiak gauzatzeko euskarak ahozko eredu estandarra finikatu gabe baldin badauka oraindik?



Bikoteak, autopsiak eta familia handiak

ARANTXA ITURBE

Bakarkako ariketa da idaztea, antzerkirako ez denean. Antzerkian, familia osoaren eginkizuna da hitza; hots, esaldia sentimentu eta paperekoa benetako bihurtzea.

Bikotea

Agurtzane Intxaurregak eta biok osatzen dugu bikotea. Idatzi izan ditugun lan guziak kafe baten bueltan hasten dira. Zer moduz? Ondo, etxean?, familia ere bai, laneko gorabeheraren bat... Bikote baten arteko hizketagaia. Horrela hasi zen *Aitarekin bidaian* ere. Adinean aurrera goaz, gurasoak zahartuz, ezagun batek kontatutakoa, besteak aitarekin dituen buruhausteak, anekdota pare bat, eta Agurtzaneren sententzia: “Hor antzezlan bat dago”.

Agurtzanek bizitzako izkin guztietan antzerkia ikusteko dohaina du. Antzerkizale delako, eta antzerki-egile, eta antzerki-maitale. Antzerkiak bizi du. Eta arriskutsua da edozer gauza kontatzea, esaldia bukatzerako ikusi egiten duelako eszena. Eta behin eszena ikusten badu, akabo. Idazteria. Nirea da ardura hori: nirea da hark ikusten duena hitz bihurtzeko lana. Hamarkada bat elkarrekin egin eta gero, esan dezaket ez duela bakarka idaztearekin zerikusirik. Entzun egiten dut nik; ikusi, berak. Eta bion artean eraikitzen ditugu lan asko, borrokaren bat edo beste, oztopo dezente eta, ilusio gehiagorekin azkenean, antzezlan bihurtzen diren testuak, bere antzezlan bihurtzen diren testuak. Ze, hori du antzerki-idazle izateak: idatzitakoa abiapuntu besterik ez da, normalean beste batek/batzuk bere egiteko.

Familia haziz

Hasierako gure bikotea berehala hazi zen (ez guk nahi bezain pronto, hori ere egia da; izan zen tartean ez zuela nahi esandako aktoreren bat, arazo buro-

kratikoren bat... ohikoak, denak, antzerkiaren munduan). Bainan behin aita Jose Ramon Soroiz, seme Joseba Apaolaza eta musikari-ameslari Jabier Muguruza gonbidatu eta *Aitarekin bidaian* eraikitzeari ekindakoan erabakiak Agurtzанeren esku geratu ziren eta aportazioak, aldaketak, egokitzapenak denen esku.

Eta berdin, jada gorpuztutako testu bera gazteleraez erakusteko orduan. Lehendabiziko esaldia, lehendabiziko buruhaustea: “Zaharrak, gauzak dira”. Hitz horiekin hasten da antzeziana. Zenbat jirabuelta gazteleraez zentzu, indar eta krueltasun berberaz esateko! Soroizek irtenbidea ekarri zuen arte: “Viejos son los trapos”. Entzundakotik ekarria. Eta horrela, esaldiz esaldi, baina ez idazlearen esaldi idatzietatik; esateko idatzitako hitzetatik baizik. Esateko baitira hitz guztiak. Denak. Salbuespenik gabe. Paperean eder eta borobil uzteko idazlearen ametsak alde batera utzi, eta familia osoaren nahiak entzun, aztertu, negoziatu eta erabakitzeko ordua.

Idazlea ez da bakarrik bizi antzerkian. Familia haziz doa, eta familiako kide bakoitzak du bere tokia eta bere garrantzia.

Familia handia

Aitarekin bidaian berrogeita hamar aldiz jendaurrean eraiki eta gero, Itzulpengintza tailerrari esker, lehen jada numerosoa zen familiari kide gehiago erantsi zaizkio: familia honetan hitza eta garrantzia duten kide gehiago, bakoitza bere hizkuntzarekin, bakoitza bere esperientziarekin. Familia-buru idazlea izango zela pentsatzen zuten itzultzaleek. Hasieratik saiatu nintzen adierazten partikular samarra dela familia hau: hemen, denek dutela ahotsa eta hitza. Baita eurek ere. Egunen batean antzezlanak beste hizkuntza bat ikasten badu, beste familia baten abiapuntu izango den hitza.

Erditzeak eta autopsiak

Antzezlan baterako lehendabiziko hitzak idazten direnetik antzeziana gorpuzten denera bitarteko hilabeteak haurdunaldi baten pareko dira. Luzea, haurdunalia, gehienetan. Bederatzi hilabete baino luzeagoa. Erditzea, antzeziana lehendabizikoz erakusteko moduan den egunean izaten da.

Agurtzanek eta biok badugu eskamentua horretan. Badakigu zenbat hitz eder sakrifikatu behar izaten den bidean, antzezlanaren mesedetan; badakigu zenbat irudi gozagarri eransten diren hitzetatik abiatuta, hitzik gabe amaitzeko;

badakigu hitza dela oinarri, baina erditu gabe geratuko ginatekeela hitz horiek beste behar batzuen arabera moldatzeko, aldatzeko, egokitzeko malgutasunik ez bagenu.

Gasteizko esperientzia autopsia modura hasi zen: Diana, Monika, Ainara, David, Itziar, Arantzazu... autopsia-egile zehatz eta zorrotzak dira. *Aitarekin bidaian* autopsia-mahai gainean jarri eta han hasi ziren, hitzez hitz, esaldiz esaldi aztertzen. Eta antzezlanarekin batera, neroni sentitu nintzen aztertu: garunetik hatz puntetaraino. Eskerrak Julia alboan zen, antzerkian gorpu bakarra aztertuta ateratako emaitzak ez direla oso zientifikoak erakusteko: gorpu asko aztertu beharko lirateke emaitza sendoak ateratzeko; antzezlaneko familia osatzen duten guztiak, gutxienez.

Eta gainera, autopsiarena, azken batean, izuak, ezezagutzak eta ezjakintasunak sortutako irudi faltsua besterik ez zen izan. Ze, azken egunean, semeak aitari ingelesez, polonieraz, katalanez eta alemanez hitz egin zionean, aita hainbeste hizkuntzatan bere bidaia partikularrean galdu zenean, jabetu ginen, autopsia ez baizik-eta beste erditze posible askoren abiapuntua jarri genuela mahai gainean, familia handiarekin.

Eskerrik asko. Denoi.



Lantegikideak

Arantxa Iturbe

Nafarroako Unibertsitatean ikasi nituen informazio zientziak eta 80ko hamarkadatik hona Euskadi Irratian ari naiz lanean. Gaur egun kultura albistegi bat, Arratsaldekoa, eta sortzaileei txoko atsegina bat eskaintzen saiatzen den Arratsean saioa gidatu eta zuzentzen ditut, azken hogeい urteotan lankide ditudan Tere Beloki eta Nekane Peñagarikanorekin batera.

Kontatzea nere pasioetako bat zela sinistuta idatzi izan ditut ipuinak (*Ezer baino lehen, Lehenago zen berandu, Kontu-jaten*), idatzi izan ditut zutabeak, idatzi izan dut antzerkia Agurtzane Intxaurregarekin batera, (*Ai, ama!, X, Aitarekin bidaian*), idazten ditut egunero irratirako hitzak eta urteekin jabetu naiz kontatzeak adina betetzen nauela entzuteak. Horregatik gozatzen dut egunero zer kontatua daukan jendeak erantzungs ditzidan galderak pentsatzen eta idazten.

Irratilari naiz ofizioz; idazle, afizioz. Ametsak bete ditudala esango nuke, egunero amets egitea ofizioak eta afizioak pasioz bizitzeko ezinbesteko dela jakingo ez banu.

Agurtzane Intxaurregara

Zer naizen zehaztea zaila egiten zait. *Teatrero* hitza atsegina dut, ordea. Teatroa zinez maite dudalako izango da ziurrenik, bere arlo guzietan. Nondik sortu zaidan pasio hori ez dut jakin oraindik. Hala ere, bizimodua era formalean ateratzeko asmoz Informazio zientziatan lizentziatu nintzen. 1989an, ordea, bihotzak buruari hordagoa jo eta Eusko Jaurlaritzako Antzerti arte dramatiko zerbitzuaren hiru urteak osatu nituen, eta Hika Antzerki Taldea sortu nire ikaskideekin. Harrezkero buru-balarri ibili naiz interpretazio munduan, aktore lanetan hasieran eta gerora eszena zuzendari, bai eta antzerki idazle modura. *Ai, ama! Seda, Aitarekin bidaian, Ogro Txikia, Ilargiaren bi aldeak...* Denak dira lanbide honeitan segitzeko arrazoi sendoa.

Horrez gain, urte hauetan guzietan hainbat Gala zuzendu ditut. Telebistako gidoilarri gisa ere lan egin dut eta *Teresa eta Galtzagorri* ipuin bilduma eta “Bide-

gileak” bildumarako “*Maurizia Aldeiturriaga*” pandero joleari buruzko lana ere argitaratu ditut.

Julia Marin Arteaga

Antzerki ikuskizun ugaritan parte hartu dut itzultzaire eta zuzendari laguntzaile moduan: *Mephisto* (Klaus Mann), *Xolak badu lehoien berri* (Bernardo Atxaga), *Anarkista baten ezusteko heriotza* (Dario Fo), *Eskola hutsik* (Tahar Ben Jelloun), *Artea* (Yasmina Reza), *Lapur-zuloa* (Stephen Adly Guirgis), *Karabas* (Golden Appel Quartet eta Kanpingags), *Hor al zaude?* (Javier Daulte), *Grönholm metodoa* (Jordi Galceran), *Ilunpetan* (Peter Shaffer), *Ahuntza edo nor da Silvia* (Edward Albee), *Presidente andreak* (Werner Schwab)...

1995ean ekin nion euskararen ahoskera ezaugariak ikertzeari. Eta harrezkeroztik arlo askotako profesionalekin nabil ahozkotasuna lantzen: irakasleak, kazetariak, esatariak, aurkezleak, aktoreak, hizlariak... *Testuen interpretazioa euskaraz* gaia irakasten dut Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean, eta *Idazkuntza-teknikak Itzulidatz lan-taldearekin*.

Monika Czerny

Monika Czerny naiz, poloniarra, kontsonante konbinaketa ahoskaezinez osatutako izena duen hirian –Szczecin– jaioa. Euskal Herriarekin 1997an egin nuen topo lehen aldiz, Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitatean ematen ziren euskara klaseetan, hain zuzen. Gaztelaniar eta Euskal Filologian lizenziatura naiz eta euskara irakasle jardun dut Poznango eta Birminghamgo Unibertsitateetan, eta baita Euskal Herrian bertan ere hainbat barnetegi zein euskaltegitan. Irakaskuntzaz gain, azken urteotan itzulpengintza arloan hasi naiz neure txokoa bilatzen. Literaturatik urrunxeago geratzen diren testuak alde batera utzita, Eider Rodriguezentzako *Katu Jendea* ipuina polonieraratu ondoren, aurkezten dudan hauxe da nire bigarren literatur itzulpena.

Diana Draper

Ingalaterran jaioa naiz, Portsmouth-en. York-eko Unibertsitatean literatura inglesa ikasi nuen. Orain dela hamasei urte Euskal Herrira etorri nintzen eta harrezkeroztik hemen bizi naiz; lehendabizi urtebeteko Lazkaon, ondoren lau urtez Donostian eta azkenengoz Ezkio-Itsason, gaur arte. Itzultzaire aritu naiz lanean neure kasa 1998tik, eta azken hamar urte hauetan aldibereko interprete ere bai.

David Lindemann

Jatorriz Hanburgoko, Soraluzen bizi naiz gaur egun. Berlingo Freie Universität-en Politika Zientzia ikasi nuen; 2003an Euskal Herrira etorri eta UPV-EHUko Gasteizko Letren Fakultatean, Itzulpengintza eta Interpretazioa Lizentziaturan (ES, EN, DE, EU, LA) eta Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia Masterrean aritu nintzen. “Sancho el Sabio” Fundazioaren bekaduna izan naiz bi urtez. 2010tik aurrera, itzultzale autonomo gisa egiten dut lan. Gaztelerazko lan bat alemaneratu ondoren, orain euskarazko hiru liburu alemaneratuko ditut Bonn-eko Pahl-Rugenstein argitaletxearentzat.

Ainara Munt Ojanguren

Itzulpen eta Interpretazio ikasketak egin nituen Vic-eko Unibertsitatean, eta doktoretza ikasketak ere bertan egin nituen. 2003an, Txinara joan nintzen irakurle, AECIren beka bati esker, eta bi urte egin nituen han. Txinera ikasteko baliatu nuen egonaldi hura. Gaztelania, katalana, euskara eta ingelesa ditut lan-hizkuntza nagusiak, baina tarteka alemanetik eta txineratik ere egiten ditut itzulpenak. Itzultzale autonomoa naiz 1997az geroztik, eta era askotako testuak itzultzen ditut: literatura, ikus-entzunezkoak eta hizkuntzak ikasteko liburuak. Gaur egun, irakasle ere banaiz Bartzelonako Unibertsitateko graduondoko batean, eta bitartekari lanetan jarduten dut Consorci per a la Normalització Lingüística-n, txinatarrei katalana irakasten. APTIC Kataluniako itzultzaleen elkarteko sortzaileetako bat, eta PEN Catalàko kide ere banaiz.

Itziar Otegi

Oiartzuar gasteiztartua, hasiera batean zientziaren alorrean egin nituen ikasketak, bai eta nire lan-ibilbidearen lehen urratsak ere. Halako batean, ordea, Gasteizko Letren Fakultatean ikasketak egin eta itzulpengintzara jauzi egin nuen. Geroztik, itzultzale eta interprete nabil, gehienbat neure kontura. Zientzia eta literatura itzultzen ditut batez ere. *Axenario* (Jules Renard), *Hil ala bizi* (R.L. Stine), *Ez da erraza gizon on bat aurkitzea* (Flannery O'Connor) eta *Bost hitzaldi krimenari eta histeriari buruz* (Patricia Parry) itzuli ditut. *Idazlea itzultzaleen lantegian* izeneko mintegian parte hartzen dudan bigarren aldia da.

